



Solstizioa

Suak piztu eta festak hasiko dira / 9-13

2018-06-22 OSTIRALA / 646. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



Igandean 350 korrikalarik hartuko dute parte Etxarriko kanpinean jokatu den V. Trikutrailean / 14

Sakanako kadeteak puntan: Xota Osasuna txapeldun Irurtzunen eta Altsasu garaile Lloret de Marren / 18

Trimanendako 40 lanpostu sortuko lituzkeen alternatiba dagoela diote langileek / 6

Erabilitako arropa atez-ate jasotzeko zerbitzua martxan jarri du Batuta Sakana taldeak / 7

La Banda del Jefe Bigun eta Txaston taldeen uda hasierako kontzertua gaur, Altsasun / 22

Jokini elkarrizketa

Altsasuko auziagatik Estremeran preso dagoena elkarrizketatu dugu / 2-3



Justizia eske

Jendetzak bat egin du aldarrikapenarekin / 4

ALTSASU

Urte eta erdi preso. Horretara ohitu behar ere...

Ohitu esatea asko da. Gizakiok egoera zailei aurre egiteko, eta askotan iraultzeko, gaitasuna daukagu eta denbora aurrera joan ahala, espetxeko bizitzara "egiten" zara. Baina espetxera ohitzen denik ez dagoela esan nuke.

Nolakoa da egun "normal" bat? Orduak betetzeko zer edo zer egiten duzu?

8 ordu patioan eta 16 ordu ziegan ematen ditut. Eguna betetzeko plangintza bat eginez gero, eguna azkartxo pasatzen da. Gorputza eta burmuina jorratzen saiatzen naiz. Horregatik, kirol dexente egiten dut fisikoa lantzeko (korrika, futbola, muskulazioa...) eta burmuina lantzeko liburuak eta egunkariak irakurri, xakean, dama-jokoan eta antzekoetan aritzen naiz, sudokuak... Burua lanpetuta mantentzea oso garrantzitsua da, ez egitekotan buruari bueltak ematen hasten zarelako eta beheraldiak izateko arriskua duzu.

Bestalde, prestakuntza aldetik, hainbat ikastaroetan izena eman dut, hauetako bakar batera joateko deitu ez nauten arren, eta behin errekurtsioak bukatuta eta izango dugun zigorraren arabera, unibertsitateko gradu bat ikasten hasiko naiz.

Zer moduzko erlazioa duzu gainontzeko presoekin?

Gainontzeko presoekin dudan erlazioa ona da. Sartu nintzenetik arazorik ez dut izan. Preso kopuru txikiago batekin konfiantza izatera iristen zara eta taldetxo moduko bat egiten duzu, eta talde horretan denbora luzez egoten naiz. Hala ere, preso guztiekin hitz egiten duzu. Gainera, herrialde ugari jendea batera egonda hainbat kultura, ohitura eta hizkuntza ezagutzeko aukera izan dut.

Zuen egoeraren berri badute?

Gure egoeraren berri guztiek dute. Bitxikeria gisa, izan genuen zigor eskaeraren berri preso batek esan zidalako jakin nuen. Esan bezala, gure egoeraren



"Momenturen batean justizia egonen dela espero dut"

JOKIN UNAMUNO GOIKOETXEA ALTSASUKO AUZIAGATIK PRESO

Altsasuko auziagatik kartzelan behin-behinean preso 19 hilabete (586 egun) darama. Estremerako espetxetik erantzun du Guaixe astekariak bidalitako galdetegia. Epaia jakin berri, baina fiskaltzaren helegitearen eta Iruñeko manifestazioaren berri ez zituela.

berri guztiek dute eta elkartasuna adierazi didate, auziarekin harriritu daudelako. Hau guztia injustizia galanta dela deritzote eta lasai egoteko, azkenean gauza konponduko dela esanez animo pila ematen dizkidate. Auzi honek sortu duen harriduraren isla: funtzionario eta guardia civil batzuek ere euren elkartasuna adierazi didate.

Kartzela horrela imajinatzen zenuen?

Espetxea beti txarra da, lau pareren artean bizi behar duzula eta kontrolpean zaudelako une oro. Hori esanda, imajinatzen nuena baino hobea da bizitza hemen barruan. Euskal presoek duten bizimodua ezagutzen nuen bakarrik, eta guk dugun bizimodua malguagoa da. Lehen graduan egonen banintz, egoera desberdina litzateke.

Epaiketa bera ordura arteko "errutina" hausteko modu bat izan zen, ezta?

Horrela izan zen, bai. Epaiketan herriko jendea eta gainontzeko auzipetuak ikusi ahal izatea espetxealdia "alde batera" utzi ahal izatea ekarri zuen. Gainera, 17 hilabetetan espetxetik ateratzen ginen lehen aldia izan zen, eta furgonetako leihatilatik pareta ez den zer edo zer ikusi ahal izan nuen eta Auzitegi Nazionalera iristean herriko jendea garaxika entzuteak indar asko eman zidan, egun horiei aurre egin ahal izateko.

Zortziek topo egin zenuten auziaretoan. Zer moduz?

Auzipetuak ikustean asko emozionatu nintzen. Asko hitz egiteko betarik izan ez genuen arren, elkarri animoak eta babesa ematen genuela sentitu nuen eta hori garrantzitsua izan zen. Adurrekin eta Oihanekin unero egon nintzenez (pezeran eta ziegan), luze hitz egin ahal izan genuen. Bakoitzak daukagun egunerokotasuna azaldu genuen, epaiketaren nondik norakoak komentatzen genituen, barre egin genuen ere... Denetarako denbora izan genuen.

Azken eguna gogorra izan zen, behin epaiketa bukatuta denbora luzez elkar ikusi gabe egon

 EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	 Etxe pasiboetarako egokia	 Beirak lehorrean jarrita
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea			



behar garena genekielako. Azken momentu horiek elkarri indarra emateko balio izan zigun eta epaia iristerakoan lasai egon behar ginela ere adostu genuen, beheraldi handia izatea ekiditeko, eta balio izan duela pentsatzen dut.

Epaiketan zuen bertsioa emateko aukera izan zenuten.

Auzi hau hasi zenetik Guardia Civilaren eta euren bikotekideen bertsioa bakarrik erabili da. Eta hori elur-bola geroz eta handiagoa izatea ekarri zuen. Epaiketan gutako bakoitzak, lekukoak barne, gau horretan gertatutako eta bizitakoa kontatzeko aukera izan genuen. Epaia irakurtzen badugu guk esandakoak ez du ezertarako balio izan. Auzitegi Nazionalan hau gertatuko zela nahiko argi neukan, baina Gorenean baliagarria izanen dela espero dut.

Zer inpresio utzi zizun epaiketak?

Hasieratik defendatu dena argi eta garbi gelditu zela uste izan nuen. Epaiketan terrorismoa inondik hartzerik ez zegoela nabarmen gelditu zen, epaileek eta akusazioek zirku handia egin zuten arren. Haien lekuko eta adituek gure abokatuei erantzun behar zieten ez ziren gogoratzen edo harritzeko moduko erantzunak eman zituzten. Ospa!-ren inguruan galdekaturata izaten ari zela, asanblada horrek egiten dituen ekintza biolentoak kartelak eta pankartak jartzea zela esan zuen guardia civil batek, terrorismoarekin ezinezko lotura egiteko

erabili nahi izan zen argudioa izanik.

Epaiketan zehar aurretik ezetatutako hainbat proba onartu zizkigun epaimahaiak, eta akusazioek aurkeztu nahi zuten bideo bati ezezkoa eman zioten (bideo hori gero ikusi zen arren). Epaiketan behatzaileak egon behar zirela guztiok genekien, eta hau guztia behatzaileei begira egindako planteamendu bat izan zela uste dut, defentsa-gabeziaren afera alde batera uzteko helburuarekin.

Hala ere, lehen esan bezala, epaiketa ondo joan zela uste izan dut eta gaur egun ere berdina pentsatzen dut, epaia epaiketan jazotakoarekin inongo zerikusirik ez duelako.

Terrorismo zigor eskaerari aurre egin behar diozue. Zer iruditzen zaizu eskaera hori?

Inongo zentzurik ez zuen eskaera iruditzen zitzaidan eta fiskaltzak berdina uste zuela deritzot, egindako bigarren eskaera hori ikusita. Terrorismoarena eroriko zela argi neukan, Gorenean izanen zela uste nuen arren. Nire beldurra bestelako bat zen. Epaian terrorismoa kendu arren zigor handiak ezartzen bazizkiguten garaipen handia lortu eta elkartasun uholdea desagertuko

"EPAIA IRISTERAKOAN LASAI EGON BEHAR GINELA ADOSTU GENUEN, BEHERALDIA EKIDITEKO"



zela uste nuen. Ikusi daitekeenez, oker nabilen.

Kasu honetan gauza asko nahasten dira?

Auzi hasi zenetik, gertatutako guztiari zergati bat ematen saiatu gara guztiok. Nafarroako Gobernuaren kontra egin nahi zuten; Estatuko Segurtasun Indarrei babes handiagoa eman nahi zioten, etorkizunean polizia bat ukitzean zer gertatu daitekeen argi uzteko; euskal gazterian beldurra sartu nahi zuten... Teoria horiek guztiak egia izanen dira segur aski, baina hau guztia errazagoa dela uste dut.

Espainiako Estatuak Euskal Herriak bizi duen garai berriari aurre egiteko politika-argudiorik ez duenez, orain arte funtzionatu izan zaion dinamikari jarraipena eman nahi izan zion, inondik terrorismo delituak

ateraz. Horren isla Oreretakoan eta gure kasua dira.

Altsasun gertatzea kasualitatea izan zen?

Horrela izan zela uste duenik ez dela egonen suposatzen dut. Kalea nahiko lasai zegoen momentu batean (gai honekin batez ere), urtero errepresioaren kontrako eguna, Ospa eguna, antolatzen du Ospa!-k eta Guardia Civilari eta hedabideei esker, egun hori ospe handia hartzen joan zen. Hori guztia baliatuz, Koxkako gertaera izugarritzko muntaia sortzeko erabili zuten,

"EPAIKETA ONDO JOAN ZEN. EPAIA EPAIKETAN JAZOTAKOAREKIN INONGO ZERIKUSIRIK EZ DU"

aurreko galderan azaldu dudana eta zilegi den aldarrikapen bat kriminalizatzeke helburuarekin. **Eta horren guztiaren erdian egoteak zer sentiarazten dizu?**

Amorrua eta beldurra. Azken finean, epaituak izan diren gertaekin normalean inor ez da espeteratua izaten (duela gutxi Iruñeko auzitegian 21 hilabeteke zigorra ezarri dute antzeko gertaera batzuegatik, Aljecira-sen jazotakoa...), baina gu bi urterako bidean gaude, eta denbora luzerako egon gaitzezke gauzak ez badira aldatzen. Hala ere, momenturen batean justizia egonen dela espero dut. Bitartean, bai gu, bai kanpoan zaudeten guztiak aurrera egin behar dugu, elkarri animoak eta indarrak emanez.

Nola bizi izan duzu orain arte auziaren inguruan kanpoan egindakoa?

Gurekiko egon den elkartasun uholdea txalotzekoa izan da. Ekimen ugari antolatu dira, hainbat jendeke parte hartuz... Gaia lantzeko era oso egokia erabili da, nire ustetan gabeziak egon badira ere. Orain helegiteen garaia da eta mobilizazioak jarraitu behar dira, gizartean gai hau itzali ez dadin. Beraz, eskerrik asko eta animo!

Kalera ateratzean espero duzu...

Ez dut ezer berezirik espero. Oso zaila ikusten dudana arren, sortu den mugimendu guztia beste aldarrikapen batzuetara desbideratzea espero dut, aurrera eraman beharreko hamaika borroka daudelako oraindik, eta egonen direlako.



Gurasoak justizia eske larunbateko manifestazioaren burutik.

"Bermeak dituen Justizia"

"Hau ez da justizia. Altsasukoak aske" leloa zuen manifestazioak 80.000 eta 90.000 pertsona artean elkartu zituen Iruñeko kaleetan. Bihar, 19:00etan, Madrilen Sol eta Justizia Ministerioaren arteko manifestazioa deitu du Madrilgo babes taldeak

ALTSASU Handia espero zen eta "izugarria" izan zen Altsasuko auzian gertatzen ari den guztia salatzen Iruñean larunbatean egindako manifestazioa. Altsasu Gurasoak taldeko bozeramaileek akaberan hitza hartu eta hasieratik garbi utzi zuten haien seme-alabekin "benetako epai-astakeria gertatu" dela haien kontra espetxe zigor luzeak ezarritako. Halakorik berriro gertatzea ezin dela onartu gaztigatu zuten. Preso dauden zazpi auzipetuen "bizitza eta etorkizuna moztu eta senideen egunerokoa hipotekatuko dute zigorrek".

Gurasoek gogorarazi zuten urte eta erdi daramatela oinarriko eskubideen "urraketa" salatzen. Halakoak instrukzioaldian, epaiketan eta epaian izan direla nabarmendu zuten. "Eskubideen eta lege-oinarrien

urraketa" ikusi zuten "gure hiru semeren aurka behin behineko espetxealdia ezartzean" edo "ihes egiteko arriskua argudiatuta beste lau semeren kontra berriki espetxealdia erabaki denean". Halako arriskurik ez dela egon azpimarratu zuten Altsasu Gurasoak taldeak. "Epaileen aurrean behar izan den guztietan aurkeztu dira; fiskaltzak 375 urteko espetxe zigorra eskatzen zuten eta ez dira etxetik mugitu; atxilotuak izan baino lehen bost egun zeramatelako normaltasun osoz bizitza egiten, lanera joaten, epaiketa izugarri hau ezagututa

MAKINA BAT SAKANDARREK ETA UDAL GUZTIETAKO ORDEZKARIEK PARTE HARTU ZUTEN

ere". Horregatik, haien guztien askatasuna aldarrikatu zuten, "etxean, lanean eta ikasten" egon daitezten.

Itzala

Gurasoen iritziz "epaileek ez dute egia bilatu" eta "nabarmena da mendeku gogo disimulurik gabea". Gertaeren terrorismo kalifikazioarekin "Nafarroako ohiko epaileari epaitzeko gaitasuna ostu eta epaia salbuespeneko auzitegi batera eraman" zela salatu zuten. 1841era arte nafarrak Nafarroan epaitzen zituztela gogorarazi zuten (inkisizioa salbu). Espainiako Auzitegi Nazionalak "kanpoko eraginek baldintzatuta" dagoela nabarmendu zuten.

Aldi berean, Guardia Civilak auzian duen itzala azpimarratu zuten: Carmen Lamela instrukzio epailea saritu du; Guardia

Civilak ikerketa egin zuten; hark egin zituen atxilotetak; lekukoak eta perituak Guardia Civilak izan ziren; Concepción Espejel epaimahai burua Guardia Civilko koronel batekin dago ez-konkordia eta erakundearen gurutzera jaso du. Gurasoek auzitegiaren eta justiziaren neutraltasuna zalantzan jarri du.

Gurasoek ziurtatu dutenez, "ez dituzte terrorismoagatik zigortu, baina bilatzen zuten zigorra ondo bete da". Fiskalak helegitea jartzerakoan "terrorismo delituari" eusteak "jarritako zigorraren astakeriarekin konforme ez, eta fiskalak are zigor handiagoa nahi du, sufrimendu gehiago, mendeku handiagoa. Ezin dugu horrelako izugarrikeriarik onartu". Epaia aztertu dutenek ateratako ondorioa gogorarazi zuten: "zigorrek krudeltasuna eta ankerkeria bilatzen dute. Neurritz kanpokoak dira erabat". Gurasoek ere "edozeini erronka jo" zioten: "esan dezala horrelako zenbat kasutan espetxe zigorrik izan den". Eta Iruñeko taberna batean Espainiako polizia batzuekin gertatutako liskarraren epaia ekarri zuten gogora: ur-

GAUR UHARTEN, 19:00ETAN, ARGAZKIA. ASTEAZKENEAN, 13:00ETAN, ARBIZUN BRINDISA

tebete eta bederatzita hilabetekoa izan da zigorrik handiena.

Botere banaketaz

Gurasoek nabarmendu zuten, "botere abusu baten aurrean gaude". Epaileen erabakiak onartu behar direla eta boterearen arteko bereizketa dela demokraziaren oinarria esaten dutenei ere zuzendu ziren gurasoak: "Montesquieuk boterearen arteko bereizketaren teoria garatu zuten, ez zuen bereizketaz bakarrik ari, baita boterearen arteko orekaz ere, haietako inork ez zezan bere botereaz abusa. Orekaz eta haien arteko zaintzaz ari zen, giza eskubideak eta oinarri demokratikoak errespetatzearen. Esaten zuten botereak botereari galga jarri behar ziola".

Gurasoek "egoera bidegabe honi buelta emateko beharrezkoak diren neurriak" lortzeko eta "beste inongo herriarri" halakorik ez gertatzeko neurriak eskatu zieten eragile guztiei, "kalitate demokratikoaren, giza eskubideen, benetako Zuzenbide estatu batean bermaturik egon beharko luketen oinarrien, elkarbizitzaren, bakearen, askatasunaren eta Justiziaren ize-nean". Eta "lege-neurriak" aldarrikatu zituzten, "legearen erabilera estentsiboa eta botere abusuak saihesteko". Terrorismo delituen tipifikazioa "zorrotz erreformatzeko" eskatu zuten. Baita "nafarrak ez ditzaten beste inon epaitu Nafarroako ohiko epaitegi batean ez bada". Gurasoen eskaeren zerrenda ere "kanpoko esku hartzea eta ezohiko auzitegien gehiegizko boterea mugatzeko neurriak" zeuden.

Politika, gizarte, kultura, unibertsitate, zuzenbide eta erakundeetako eragileei mahai bat sortzeko aukera proposatu zieten, "zaharberritze demokratikorako eta eskubideak eta askatasunak berreskuratzeko". Horren inguruan eztabaida sortzea eta edukiz betetzea nahiko luketela gaineratu zuten, "benetako konponbide eraginkorrek aurkitzeko eta horrelako gertakariak berriro inori ez gertatzeko eta, azkenean, Justizia egiteko". Justizia izan zen gurasoek egin zuten azken aldarrikapena: "bermeak dituen justizia, gure lurtean errotutako justizia, Nafarroako gizartean nagusi diren eskubide eta askatasunarekiko errespetuzko oinarri demokratikoekin batera joango dena".



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Urrun dago Madril

Gogorra epaiaren albistea, beldurrik handienak betez. Ankerra. Justiziari mendekua gailenduz, balizko delitu arrunta zigor epaitegi bereziak ebatziz. Gogoangarria Iruñeko manifestaldia, bidegabekeriaren aurkako elkartasunezko garrasia.

Aurretik ere bagenekien Auzitegi Nazionala ez dela justiziaz jarduteko organoa, Estatuaren helburu politikoak bermatzeko salbuespeneko tresna baita, juristek beraiek ere argi adierazten dutenez. Konstituzioaren espirituaren aurkakoa, Francoren TOPen (Tribunal de Orden Público) ordezkua. Hala ere, bagenuen itxaropena.

Balizko delitu batengatik justizia eta proportzionaltasuna. Zer gutxiago, edo zer gehiago, eskatzen ahal zaio Justiziari? Baina, argi dago, epaileek zorigaitzeko istilua epaitu ordez, euskal auzi edo gatazka politikoaren hondoetara joz, Altsasuko gazteengan irudikatu dute etsaia eta haien aurka jaurti dute zigor mendekatzailer eta koldarra.

Historiari zertzelada bat hartuta, zaharrak berri. Zehazki, 1841eko Foruen Murrizketako Legearen ondoren, 35 urtetan izoztutako kupoa aldebakarrez eguneratzeko, 1876an Canovas del Castillok bota zuen "indarkeria ekintza batek ematen du Zuzenbidea; izan ere, indarkeria Estatuaren eratan badu, indarkeria bera da Zuzenbidea". Ikaragarria, hitz haien gaurkotasuna! "La razón de Estado" esaten dio "X" psoebaroiak.

Urrun dago Madril, urrun epaitzen eta espetxeratzen dituzte gazte nafarrak. Beharbada, Altsasukoen askatasunarekin batera, ordua da Nafarroari dagokion Zuzenbide demokratikoa eskuratzeko, Madrilen indarkeria nahiera pairatu behar izan gabe. Altsasuko gurasoek aldarrikatu bezala, erregenerazio demokratikoaren garaia ere bada!

GUTUNA

Iruña-Veleia: Interesa eta interesik eza

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON
EUSKALTZAIN URGAZLEA

Grafitoen afera tabu bihurtu da euskal kulturaren baitan eta gizartean erreferente den hainbati ez dio axola. Beste hainbati bai, baina norabide ezberdinetan.

Aztarnategiaren kudeaketa lortu zuen EHUK bertako "adituek" faltsutako eman ondoren grafitoak eta hauek kontuan izan gabe Euskararen Historia idatzi digu horietako batek, dirudienek Madriletik diruz lagundurik. Otsa artzai? INTERESA ere, "adituekin" lerratuta, afera zientifikoa epaitegi arruntera eraman zuen politikoak. Eta alderdikideek saritu egin zuten Europako hauteskunde zerrendan sartuta!

Interesa argitzeko, ezinbestean, haien izana eta izena garbitzeko arkeologo auzipetuek, bi euskaltzainek eta SOS Iruña-Veleia taldeak. Eta zer dute irabazteko hauek? Onura ekonomikorik edo politikorik ez, antza!

INTERESIK EZA, euskal gizarteak orokorrean. Muzin egiten zaio hura aipatzeari, baina ulergarria da. Zer espero daiteke unibertsitate eta kultur erakundeetako aditu askok isiltasun "konplizean" badihardu? Gizarteko gaiek gizartearen konplizitate eskatzen dute eta arlo ezberdinetan erreferente diren gehienek ez dute horrelakorik erakutsi Iruña-Veleiaren kasuan.

Horien artean Euskaltzaindia. Akademiak,

euskararen egungo eta etorkizuneko egoerarekin arduratzeaz gain, bere memoria zaindu beharko luke. Eta grafitoak memoria horren adierazle esanguratsua izan daitezke.

Non daude euskal kultura eta politikoak? Kolonizaturik? Entzun diezue Urkulluri eta Otegi? Urbizuri edo Ordorikari? Atxagak ez al du Euskadi Irratiko pasiera zerutiarretan Henrike Knörrekin honi buruz jarduteko betarrik? Entzun duzue grafitoen gaia hamarkada honetako bertsolari txapelketetan? Debekua?

"Errelatoak" hizpide ditugun honetan, euskararena era objektiboan idatzi behar dugu, zientziak, eta ez dogmak, eskaintzen dizkigun tresnak baliatuta. Ostrakak laborategi espezializatuatan aztertu behar dira. Euskararen memoriak behar-beharrezkoa du.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXE eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Politika bai, politika ez

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Behar larrian, arriskuan, ikusten den pertsona garrasika hasten da bere burua ezinean ikusten duenean; jendearen arreta bereganatu nahi du, arriskutik atera ahal izateko beharrezkoa duen laguntza eskuratzeko. Bizi-senak bultzatzen gaitu horrela erreazionatzera.

Hain arrunta den bizipen honekin argitu nahi dut, gaur, pentsionisten artean zabaltzen ari den jarrera bat: "Politikarik ez". Ez eta bai. Jubilatuon egoera salatzen, gure eskubideak aldarrikatzeko, gure borroka antolatzen, kalera ateratzeko... hau da, gure egoeraren larritasunaz jabetzeko eta borrokatzen, ez

dugu politikoen beharrik. Oso ongi egiten ari gara gure lana, gaur esaten zaion lan transbertsal hori; heldutasun eta konpromiso itzela azaldu dugu.

Baina ez da aski. Garrasia laguntza erakartzeko egiten da eta laguntza behar dugu, laguntza zentzu zabalean, langileak, gazteak, langabezia daudenak, eta hori eskatzen diogu gizarteari, gure egoeraren larritasuna ez baita soilik gurea, guztiona baizik.

Guztiondako aldarrikatzen dugu pentsio duin bat bermatuko duen Pentsio Sistema Publiko onbideratu bat. Jendea gero eta gehiago jabetzen ari da errealtate honetaz, eta erantzun baikorra ematen ari da.

Baina hori ere ez da aski, eta bada gure garrasia entzun eta larritasunetik ateratzera behartuta dagoenik: politikoa. Politikoa da arduradun nagusia; berak hartzen ditu erabakiak, onerako edo txarrerako. Jendeari

elkartasuna eskatuko diogu, politikoari justizia. Ez dezagun baztertu politika, gure aldarrikapenak jaso, bideratu eta defendatuko dituen politikoak ere behar ditugu eta, horiek aukeratzeko ardura, gurea da, gurea bakarrik.

Arriskuan gaudenean, luzatzen zaizkigun esku guztien beharra izaten da eta heldu egin behar zaie ergelkerietan ibili gabe.

Ongi etorria izan dadila jubilatutako guztiei bizi duin bat bermatzeko konpromisoa hartzen duen politikoa ere.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Raskin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Trimanendako alternatiba dagoela diote langileek

Aukera horrek Altsasun 40 lanpostu sortuko lituzkeela gaztigatu dute. Langileek 5 hilabete daramate kobratu gabe. Konkurtso administrazioarekin harremana izan dute eta atzo Sodena enpresa publikoarekin elkartu ziren

ALTSASU

Triman Minerals enpresako langileek deituta 200 bat pertsonak manifestazioa egin zuten Altsasun pasa den ostiralean. Enpresan gertatzen ari denaren arduradun bere jabea, Jose Luis San Segundo Perez egin zuten, “ez da ari bere funtzioak betetzen eta ez du onartzen langileekin duen zorra”. Pasa den urtean hilabete guztietan oso berandu kobratu zuten, abenduko estrarik ez zuten jaso eta aurtengo 5 hilabete ez dituzte kobratu. Azken horrek langileendako “ondorio larriak eta egoera jasangaitza bizitzea” dakarkielako gaztigatu zuten.

Unai Martinez langileak azaldu digunez, “zuzendaritzako kideen artean istiluak izan ziren eta geroztik egoerak txarrerara egin du. Lana jaitsi da. Gelditu den zuzendaritzak beste negozio batzuk ditu. Haiek konpontzeaz arduratu da eta gu alde batera utzi gaituzte”. Gaineratu duenez, “enpresa nahikoa arazoetan sartuta dago. Orain bankuak, zordunak eta haserre dauden bezeroak sartu dira. Haiendako egoera larria da”.

Moncayo Real State SLU, Saher 2000 SLU eta Triman Minerals enpresak talde berekoak dira eta pertsona bakarrak “gardentasunik gabe, gaizki” kudeatzen dituela salatu zuten langileek. Bi adibide eman zituzten: “ekonomia-kontu auditatu bakarrak 2014koak dira eta 2016an dibienduak banatu zituzten langileok nominetan atzerapenak genituen bitartean”.

Konponbide eske

Langileek argitu zuten, Sodena enpresa publikoak Triman Mineralsi emandako 1,5 milioiak Aljerian proiektu bat garatzeko izan zen. Baina “ez zen atera eta maiatzaren 21ean enpresak konkurtsoa eskatu du”. Langileek Nafarroako Gobernuko Ekono-



Trimaneko langileek konponbidea lortu arte mobilizatzen segituko dute.

LANGILEEK SALATZEN DUTE ENPRESAREN KUDEAKETA "GARDENTASUNIK GABE" EGITEN DELA

mia-Garapenerako lehendakariorde Manu Aierdiri galdetu zioten zein bermerekin utzi zion Sodena Triman Mineralsi dirua. “Oso larria iruditzen zaigu diru publikoa horrela utzi izana enpresa honi, enpresa hau kortijoa bat izan da eta ez dio egoeraren azalpenik sekula eman langileen ordezkariari”.

Langileek Sodenari eta Triman Mineralseko zuzendaritzari egoera konpontzeko eskatu zieten. Hasteko zor zaizkien nomina guztiak ordaintzea exijitu zuten. Langileen iritziz, jabeak “enpresako zuzendaritza utzi behar du eta edozein proiektu industrial erraztu behar du”. Sodenari enpresaren bideragarritasunerako aukera guztiak aztertzeke eskatu zioten eta zehaztu zuten: “enplegu alternatiba guztiak, zorraren ordainketaren gainetik lehenetsi behar dira”. Zuzenda-

ritzarekin ezin dela elkarlanean aritu gaztigatu zuten.

Altsasuko lantokiarendako egungo 18 lanpostuez aparte beste 40 sortzeko alternatiba dagoela gaztigatu zuen. “Zuzendaritza ez dago horren oso alde”. Horregatik, Sodena enpresa publikoari exijitu zioten “utzi-tako dirua enpleguaren berme gisa erabil dezala”. Izan ere, Triman Mineralseko langileen sentipena da Sodena “bere hanka sartzea konpontzeaz arduratzen ari dela eta gu ez gaituela laguntzen”.

Taldearen osaera

Triman bere baitan hartzen duen enpresa taldeak 60 bat langile inguru ditu: Iruñean (bulegoak) eta Asturiasko Mieresen eta Loredon eta Altsasun lantegiak (18 langile). Guztiak etxean daude ordaindutako lizentziarekin, “kobratu gabe, noski”.



Aralar eguneko bazkaria. @ARBIZUKULTURA

Aralarko Elkartearen eguna bueltan da

Erakundeari bultzada emateko eta mendiaren titulartasun osoa aldarrikatzeko balio du

SAKANA

10 urteko etenaren ondoren bueltan da Aralar Elkartearen eguna. Araitx eta Sakanako ehun bat pertsona elkartu ziren igandean Guardetxea zen eraikina ondoan. Han jarritako karpn elkarteko presidente eta Lakuntzako alkate den Patxi Xabier Razkinek elkartek esku artean dituen egitasmoen berri eman zuen. Horien artean dago guardetxe berria egitearena. Razkinek aurreratu zuenez, Aralar basozainaren bulego-erakina (60 m2) udazkenean jasotzen hasiko dira. Nafarroako Gobernuak 90.000 euroko aurrekontua du horretarako.

Urteetan festan parte hartu izan duen Irañetako alkate Juan Anjel Beraza Gastesik esan zigunez, “pozik gaude berreskuratu delako. Giro ederra izan zen. Gustura egon ginen. Jende nagusia joan ginen, gazteek haria galdu dute eta joatea kostako da. 2019koa erakargarriagoa egiteko ideiak atera ziren”. Nabarmendu digu ere heldu den urterako basozainarendako eraikina egina egonen dela eta horrela “lanean serio” ari direla ikusiko dela nabarmenduko da. Guardetxeko egitasmoa gauzatzeko gobernuarekin sintonia ona dagoela gaineratu zuen.

Ikastetxeendako diru-laguntza deialdia egin du Altsasuko udalak

Altsasuko Udalak herriko ikastetxeei zuzendutako deialdia egin du, heldu den ikasturterako dena. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiei zuzendutako deialdia da udalarena. 37.500 euroko diru poltsa du deialdiak eta aurkeztutako egitasmoaren % 70 lagunduko du gehienez udalak.

Lau arlotan egindako jardueri bideratuko zaie Altsasuko Udalak ikastetxeei emandako diru-laguntzak: heziketa proiektu berritzaileetarako, berrikuntzaren bidez irakaskuntzara zuzendutako materiala hobetzeko programak, euskarazko eskolaz kanpoko ekintzen gastuak eta azkenik A, B eta D ereduaren eremu akademikoan eskara sustatzeko hizkuntza horretan gauzatzen diren jarduerak. Deialdia Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratzen denetik 30 eguneko epea izanen dute ikastetxeek diru-laguntza eskaerak egiteko.

Bardea eta arroz soroak ezagutzeko bidaia Arakildik

Arakilgo Udalaren Kultura Zerbitzuak Bardea eta han dauden arroz soroak ezagutzeko irteera antolatu du hilaren 30erako. 08:30ean abiatuko da autobusa herrietatik. 10:30ean arroza, dilistak eta beste ekoizten dituen El Alcaravan familia-enpresa eta soroak bisitatzea aurreikusita da. 12:30ean Bardeara bisita gidatua eginen da, autobusez; eta leku esanguratsuetan geldialdiak egingen dituzte. 15:00etan Arguedasgo Hernani jatetxean bazkaria izanen da. Ondoren, herrian arratsaldea libre pasatzeko aukera izanen da eta Arakilerako bueltako autobusa 19:00etan abiatuko da.

Astelehenera arte eman daiteteke izena Arakilgo udaletxean, edo 948 500 101 edo 634 584 226 telefonoetara hots eginez. Arakilen erroldatutakoek 25 euro ordaindu behar dituzte, 18 haurren kasuan. Ibarrean erroldatuak ez daudenak, berriz, 30 euro helduen kasuan eta 20 haurren kasuan.

Batuta arropa etxez-etxe jasotzen hasi da

Aste honetan Lakuntzan hasi da eta heldu den astean Uharte Arakilen egingen dute bilketa. Batutakoek aurretik bilketa eguna zein den jakinaraziz ateetan eta portaletak oharra itsatsiko dute eta han jakinaraziko da bilketa eguna

SAKANA

Zirkulu-ekonomia praktikan jarri nahi du Batuta Sakana elkarteak arropa bilketaekin: jendeak erabili eta baztertutako arropa jaso bigarren erabilera bat emateko; dela bigarren eskuko arropa dendetan saltzeko (ongi dagoen arropa), dela kotoia edo trapuak egiteko (egoera txarrean dagoen arropa). Eta, gainera, dituzten lanpostuak finkatu eta ahal bada berriak sortu nahi dituzte (bilketarako edo bigarren eskuko arropa-denda sortuz). Hau da, sortu daitekeen aberastasuna Sakanan gelditzea nahi dute.

Gaur egun Sakanan bi modutara jasotzen da erabilitako arropa: Euskadi-Congo eta Humana elkarten edukiontzien bidez edo Emausko Trapuketarietxetik etxeetan egiten dutena. Eurek Sakana bertako alternatiba eskaini nahi dute, "dagoen bilketa errazten eta hobetzen duena. Izan ere, jendeak ez du etxetik mugitu behar. Gu joan gara haien etxeetara". Sakanako Mankomunitatearekin elkarlanean ariko dira gainera.

Arropa atez ate bilduko dute, astearteetan eta ostegunetan. Baina bilketa zein herrietan eta zein egunetan egingen duten jakinarazteko Batutako kideek



Batutako tailer bat. Harremanetarako: 948 469 206 edo batuta.sakana@gmail.com.

herrietako etxeetan kartelak jarriko dituzte astelehen eta asteazkenetan, horrela aldamen guztiak jakinaren gainean egiteko. Guaixeko Merkatu Txikia atalean ere horren berri izanen da. Beraz, kartela jarri eta hurrengo egunean pasako lirake etxeetatik arropa jasotzera. Herriarrei eskatzen diete arropa poltsa itxietan uztea, bai portalean bai etxeke atean. Haien asmoa da urtaro bakoitzean Sakanako herri guztietan bilketa bat egitea da. Heldu den astean hasiko dira.

Elkartez

"Ekonomikoki jasagarria den lan ingurua sortzeak" elkartzen dituen hiru kide ditu Batutak. Euren nahia da "gure lanaz bizitzeko helburuz lanpostuak sortuz gizarteari positiboan ekarpena egitea da". Aldi berean, euren inguruko "ekonomia eta gizarte sarea dinamizatu" nahi dute. Altsasun du egoitza Batutak. Herriko etxegabeen aterpea, Birziklatze laborategia eta Emausko Trapuketarietxekin batera tamaina handikoen bilketan aritzen dira. +www.guaixe.eus



Erreklamazioak 29ra arte aurkeztu daitezke. Inprimakia udaletxean edo web orrian.

Iberdrolak onartu du argi-hornidura arazoak daudela

Azken hilabeteetan izandako mozketengatik Udalak eta Kontsumitzaileen Bulegoak 20 erreklamazio jaso dituzte

ETXARRI ARANATZ

Argindarrarekin etengabeko arazoak izan dituzte Etxarrin azken hilabeteetan. Hozkailuek, labeek edo bitrozeramikek ez dute ongi funtzionatzen. Izan da etxarriarrik asteburuetan labea edo lehortzailea pizterik ezin izan duena. Elektrizitatearen horniduran izandako mozketek etxetresna elektrikoetan matxurak sortu dituzte ere. Halako kexak jaso ditu Etxarri Aranazko Kontsumitzaileen Udal Bulegoa kudeatzen duen Iratxe elkarteak.

Horren guztiaren arrazoia da Etxarri ez duela argindar hornidura egokirik. Horregatik, bai udalak bai elkarteak etxarriarrik erreklamazioak aurkeztera gonbidatu zituzten maiatza erdialdean. 20 erreklamazio jaso eta bideratu dituzte Iberdrolara. Alde batetik, etxetresna elektrikoetan izandako matxurengatik

kalte-ordaina eskatuz eta hornidura ematean legeak ezarritakoa bete dezala eskatuz. Bestetik, Iratxe Industria Departamentuan administrazio-salaketak jarri du, egoeraren berri izan dezan eta etxarriarrek gutxiengo bermea duen zerbitzua berreskuratu dezaten.


Iberdrolaren Nafarroako Argibanaketarako Departamentuak onartu du Etxarrin argi-hornikuntza arazoak egon direla eta ardura bere gain hartu du. Iberdrolatik jakinarazi dutenez, gaur egun potentzia arazoak dituzte eskualdean dauden etxebizitzak, komertzioen eta industria-guneen argi-eskaerari aurre egiteko. Enpresak jakinarazi du ere behin-behinean argia beste sare batetik hartzen ari direla, eta oraingoz arazoari konponbidea eman diotela, baina egoerari behin betiko konponbidea emateko udalarekin bilera egingen du.

Esataria: Mainer Gaurko gaiak:

- Triman enpresaren egoeraz langile batekin
- Gurseko kontzentrazio eremuaz Josu Chuecarekin
- Urdiango San Joan kantaitaz Oihane Uharte Chuecarekin

Ostiralero 9:30ean
SAIOA Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



beleixe
guaixe.eus-en ON LINE

Historiaren txarrantxaharia Gursetik aurrera

Hala definitu zuen Josu Chuecak Europaren XX. eta XXI. mendeetako historiaren haria eta errepublikako errefuxiatuek eta Asia eta Afrikako errefuxiatu eta migratzaileek jasotzen duten tratua bera dela nabarmendu zuen

SAKANA

Gurseko kontzentrazio eremuan izandako 28 sakandarrei eta haien familiei aitortza egiteko ekitaldian izan zen ostiralean Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta historialari Josu Chueca. Azaldu zuenez, 1939ko ilbeltzean eta otsalean Europako erbestera handiena izan zen, Kataluniatik Frantziara. Gerra galdu zuten haiek hondartzetan txarrantxaz inguratutako eremuetan hartu zituzten hasieran, "gaur egungo Europan bezala". Eta orduan eta orain antzeko bizi baldintza makurrak zituztela nabarmendu zuen.

Chuecak azaldu zuen Argelesko hondartzan euskaldunak antolatu eta Gernika-Berri eremua sortu zutela, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuena. Tokiko agintarien eskarrik errefuxiatu haiek Frantzia barnako eremuetan barreiatzeko asmoa gauzatu zen. Baina nahi bezala, euskaldunek



Ekitaldia aretoa beteta zela egin zen.

ezin izan zuten Iparraldera etorri, Jean Ybarnegaray diputatuak eta prentsa eskuindarrak egin-dako kanpainari esker. Zuberorako mugatik gertu zegoen, hala ere, Gurs. Eta hara sartzen lehenak euskaldunak izan ziren,

bere espazio propioa hartuz. Eremuko beste hirurak espainiarrek, hegazkinlariek eta nazioarteko brigadetak kideek osatzen zuten.

Eremuaren zaintzaz frantsesak arduratu ziren, baina barne antolakuntzaz errefuxiatuak eta eremuko lehen burua Martin Soler Zangitu izan zen. Eremu hartatik jendea lanera ateratzen Frantzia naziekin gerran sartu zenean lan eskua behar izan zelako. Beste batzuk Espainiara bueltatu edo erbestera joatea erabaki zuten. Naziek Frantzia hartu zutenerako erdi hutsik zegoen, baina azkar beteko zuten, atzera ere. 1942tik aurrera, handik 4.000 pertsona bidali zituzten hilketa eremuetara. Gursen 1.100 pertsona hil ziren 1940ko eta 1941eko neguetan, adineko jendea gehiena.

Arakilgo, Uharte Arakilgo, Etxarri Aranazko, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko udal ordezkariak hitza hartzerakoan memoria, justizia eta erreparazioa aipatu zituzten eta esan zuten "izandako hainbat giza eskubidek urraketa memoria eta erreparazioa behar dute justizia egoteko".

+www.guaixe.eus

Sei odol-maileri aitortza egin zieten igandean

Odol-emaileen mundu eguna ospatu zuen igandean Adonak, Nafarroako odol-emaileen elkarteak. Javier Alvarez presidente duen elkarteak "odol-emaile guztien ezinbesteko eginkizuna" aitortu zuen eta "bizitza emateagatik" esker ona azaldu zien odol-emaileei. Adonako buruak gaineratu zuen odola ematea "gizarte-ekintza" ere badela: "pertsonek borondatearen mende dago eta, beraz, komunitate baten elkartasunaren eta osasun-kulturaren adierazlea da".

Igandeko 200 omenduen artean sei sakandar izan ziren. Odola 100 alditan ematera 2017an iritsi zelako urrezko domina bikoitza jaso zuen Gabriel Sagardia Etxarte irurtzundarrak. 50 emateetara iristeagatik bost urrezko domina jaso zituzten sakandarrak: Laureano Otxotorena Zabalzak (Irurtzun), Txomin Gokoetxea Iriberrik (Arbizu) eta Agustin Hernandez Solanok, Carmelo Llena Garciak eta Luis Rueda Perezek (Altsasu).

AHTren kontrako deialdietan parte hartzeko deia

Sakana Trenaren Alde taldeak bihar, 12:30ean, Aguraingo manifestaziora eta 18:00etan Uharte Arakilgo kalejirara deitu ditu sakandarrak. Tren Publiko eta Sozialaren alde eta Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontra dago taldea. Iruñea eta Gasteiz AHT bidez Sakanan eta Arabako Lautadan barna lotu nahi ditu Sustapen Ministerioak. Taldeak gogoratu du bi eskualdeetan ia 10.000 alegazio aurkeztu zirela egitasmoaren kontra eta Sakanako ia udal guztiek errefusatu zutela. Bi eskualdeei eragiten dien proiektua denez, AHTrik Ez Lautadak antolatutako manifestazioarekin bat egin du taldeak eta martxan euren pankartarekin parte hartuko du, "Sakanako herrien garrasia" azalduz. Bestetik, Uharte festetan eginen den kalejiran parte hartzera deitu dute. Haien iritziz AHT "proiektua antisoziala, antiekologikoa, eta baliabide ekonomikoaren eta energetikoaren xahutzailea da".

Guardia Civilak EH-tik alde egiteko aldarrikatuko dute

Udako solstizioa aukeratu dute Sortuk eta Ernaik Altsasuko Guardia Civilaren kuartelaren parera alde hemendik, utzi bakean aldarrikapenak eramateko. Ipar Irlandan ezaguna egin zen *bakerako garaia, joateko garaia* leloa da zabaldu nahi dutena biharko kontzentrazioarekin, 13:00etan, Altsasuko tren geltokiko aparkalekuan. Deitzaileen iritziz, "zapaltzaile guztien beso armatua izaki, herria bere osotasunean izan da Guardia Civilaren jardueraren biktima".

Eta gogoan izan dituzte hainbat arlotan izandako "zanpake-tak": demokrazia babesteagatik 1936an fusilatu zituztenak; "kapitalaren nagusikeriari aurre eginez langileen eskubideak defendatu zituztenak, Inasa kasu; euskararen kontra egindako operazioak ere gogoan izan dituzte, Egunkariaren itxiera eta atxilotuen torturak edota Mikel Arregi Marin lakuntzarra 1979an kontrol batean hil zutela.

+www.guaixe.eus



Joan den urteko erakusketa. ARTXIBOA

Errefuxiatuen errealitatea Arbizuko plazara aterako da

Sakana Harrera Harana taldeko kideak Arbizun izanen dira asteartean. Errefuxiatuek bizi duten egoera azaltzeko argazki erakusketa jarriko dute plazan 12:30ean. Horrekin batera, pertsona horiekiko zabalduetako zurrumurruek elkarbizitzan duten eragin txarra azalduko dute ere. Sakana Harrera Haranako kideek taldearen jardunaren berri emanen dute ere.

EROSKI bidaiak
Ametsetan? Egia ez lagun!

Zubetia, 1 (Altsasu)
948 564 335

Uda iritsi da!
EROSKI BIDAIAKekin

Salou <small>Uztailaren 7tik-14ra. 3* Hotela. Mantenu Osoa.</small>	400€-tik
Itsas bidaia <small>Abuztuaren 13tik-20ra. Mediterraneotik. Dena Barne.</small>	1.106€
Cerdeña <small>Uztailaren 18tik-25ra. Bilbotik hegazkina. 4* Hotela. Gosariak Barne.</small>	546€-tik
Mallorca <small>Uztailaren 21tik-28ra. Iruñatik hegazkina. 3* Hotela. Mantenu Erdia.</small>	680€-tik

Prezioa pertsonako gela bikoitzean. Irizurraren aurkako Lege berria betez, bulego honek 2.499 euroz gaineko salmentetan ez ditu eskudirutan ordainketak onartuko. Kudeaketa gastu 8€. Kontsultatu datak eta gainerako baldintzak. Plaza kopuru mugatua. ENK 618

AIZKORBE

FESTETARAKO BEROKETA

Heldu den asteburuan ospatuko dituzte Aizkorben festak, eta haren atariko gisa bihar udako solstizioa ospatzera elkartuko dira. Aizkorbearrek euren etxetik egurra frontoira eraman eta han su handia piztuko dute 20:00etan. Haren inkerrak edo txingarrak erabiliko dituzte txistorra, urdaia eta saiheskiak prestatzeko. Horiek izanen baitira afari-meriendako menua. Hura etxeetatik prestatuta eramandako entsaladekin eta postreekin osatuko dute. Afaldu ondoren su handiaren edo txikiaren gainean saltoka ibiliko dira.

ERROTZ

PLAZARA, AFALTZERA ETA SALTATZERA

Erroztarrak Nafarroa plazan elkartuko dira bihar 22:00etan. Sua egin eta han afaltzeko urdaia, txistorra eta bestelakoak prestatuko dituzte. Jatekoen ondoren, su gainean salto egingen dute. Baina ase ez denak gehiago jateko aukera izanen du.

IZURDIAGA

GAURTIK IGANDERA FESTA NAGUSI IZANEN DA

OSTIRALA 22

20:00etan Txupinazoa eta kiliak.

20:30ean Giroko kontzertua: Andreina Jolie.

22:00etan Kalderete txapelketa.

00:00etan Kontzertuak: Tandem, Txartoak eta Aitonak Raberos (gaupasa).

LARUNBATA 23

12:00etan Hurrendako eskulan tailerrak.

13:00etan Bermuta.

14:00etan Autogestionatutako bazkaria. (sukaldea, ogia eta edaria kontzejuaren kontura).

16:30ean Etxez etxeko mozerro erronda, zirkua gaia dela, Lakuntzako etxetik tabernaraino.

22:00etan Suen piztea.

22:15ean Parrilan egindakoe-kin "traje" afaria (nork bere jatekoa eraman).



Suaren gainetik salto egitea ohitura zabaldua da. ARTXIBOA

Sua udari ongi etorria emateko

Udako solstizioarekin batera egun luzeena eta gaurik motzena heldu zaigu. Sakanan biharkoan makina bat ospakizun eta ohitura izanen dira. Herri guztiak batuko dituena iluntzean sua piztearena izanen da. Gainera, urtaro aldaketak gaurtik aurrera herrietako festak ekarriko ditu.

01:00etan Dantzaldia Felix dj-rekin.

IGANDEA 24

11:15ean Meza. Ondoren otamena.

14:30ean Bazkaria.

17:00etan Puzgarriak eta hurrendako jolasak.

17:00etan Mus txapelketa.

19:00etan Txokolate-jana eta bingoa.

20:00etan Dantzaldia Bizkai "super-starrekin".

22:00etan Hondarrak afaltzeko eta hau pena nik!

IRURTZUN

ELKARREKIN AFALDU ETA SALTO

San Joan gauerako gonbidapena luzatu du Aizpeak, Irurtzuno euskaltzaleen topaguneak. Bihar 21:00etan irurtzundarrak zein bere afariarekin plazara agertzeko proposamena egin dute. Trikitilariak giroa alaituko dute. Han norberak berea afaldu ondoren, gaua ongi sartua denean, 22:30ean, suak piztu eta haien inguruan sorginak dantzan ariko dira. Pasa den ostiralean sorginen dantza ikasteko edo freskatzeko entsegu antolatu zuten.

EGIARRETA

ELKARTERA!

Egiarretarrek elkarteak dute topaleku eta bihar ere han elkartuko dira kuadrillak. Euren afariak prestatu eta afaldu egingen dute. Eta kanpoko aldean sua izanen da, nahi duen guztiak gainera saltatu dezan.

Bazkide izateko aukera



Informazioa:

lagunonakaltsasu@gmail.com

EGIARRETAKO FESTAK 2018

Abuztuak 3, 4 eta 5

Karpadun txozna eta elkarteak alokatuko dira.

Enkantearen hasierako prezioa 400€koa izango da. Izena eta prezioa elkarteko buzoian uztailaren 6a, 21:00ak baino lehen.

Informaziorako
650 06 37 73

BAKAIKUKO FESTAK 2018

Bakaikuko Bakarrek Etxea elkarteak festetan alokatuko da. Enkantearen hasierako prezioa 2.000 €-koa izango da lokal handiarentzat, eta 1.000 €-koa lokal txikiarentzat. Izena eta prezioa batean elkarteko buzoian uztailaren 4a, 21:00ak baino lehen.



Informaziorako: 647 06 35 11
Edozein zalantza galdetu



ETXARREN

MUSIKA, SUA ETA JATE-KOA

Bosgarren urtea da Etxarrenden udako solstizioko ospakizunak berreskuratu zirela. Goizean haurrak arduratuko dira iluntzean erreko dena biltzeaz eta Aranburu frontoiaren ondoan uzteaz. 19:00ak aldera elkartuko dira etxarrendarrak erre beharrekoak prestatzeko. Herriko gazteek osatutako taldeak Txoripana musika ikuskizuna eskainiko du 20:30ean. Emanaldiaren ondoren sutan txistorra eta bestelakoak prestatuko dituzte. Eta gaua sartzearekin batera su gainean saltatzeari ekinen diote.

EKAI

SUA, SALTORAKO ETA AFARIA PRESTATZEKO

Iturri ondoan, goiko plazan dute hitzordua jarrita ekaida-

rrek biharko. Udako solstizioko sua han piztuko dute 21:00ak aldera. Inkerretan edo txingarretan afaltzeko txistor, urdai eta bestelakoak prestatuko dituzte. Eta gero su gainean salto egingen dute.

ZUHATZU

OSPAKIZUNAREN LEKU ALDAKETA

Udako solstizioko ospakizunak garbitoki zaharraren ondotik frontoira aldatuko dituzte zuhatzuarrek. 19:00ak aldera jarri dute hitzordua. Lehen-lehenik beharrezko prestaketak egin eta sua piztuko dute. Otamenaren garaia 20:00ak aldera izanen da. Sutan txistorra, sardinak eta bestelakoak prestatuko dituzte. Indarrak hartuta su gainean salto egiteko aukera izanen du nahi duenak. Txalaparta eta bestelako musika tresnen doinuak lagunduta egingen dute gaualdia.



SATRUSTEGI

SUA PLAZA GORRIAN

Satrustegiri Errusia deitzen diotelako, pasa den urtean egingako kaleak berritzeko lanetan herrian "plaza gorria" egitea erabaki zuten. Beraz, aurtengoa da plaza gorrian udako solstizioa ospatzen den estreinako aldia. Hori bai, zorua behar bezala babesteko 20-25 cm-ko harea geruza jarriko dute. 21:00ak aldera su txikia piztuko dute eta han txistorra, tripotak eta sardinak prestatuko dituzte; hura izanen da afariko menua. Afaldu ondoren, indarrak hartuta, su handia piztuko dute eta haren gainean saltoka ariko dira.

HIRIBERRI

ARALARREN BAZKALDU, HERRIAN AFALDU

Hiriberriarrak urtero Aralarko Albi zelaira joaten dira eta han bazkaltzen dute. Hilaren 9an joa-

tekoak ziren, baina eguraldiagatik biharko egunera atzeratuko dute. Aralarrerantz 08:30ean abiatuko dira iturritik. Berastegiko arrateko magaletik mendira igo eta Ata ibarretik eta Artxuetatik atzetik joanez iritsiko dira Albiko zelaira. 13:00ak baino lehen iritsiko dira Albira eta han prestatuta egonen den paella-jana egingen dute. Bazkalondoa ere musika doinuak izanen dituzte. Herrira autoetan jaitsiko dira.

Eta herrian segituko dute ospakizunek. Haien erdigunea Txitera elkarte eta inguruak izanen dira. Haurrek jasotako agotza eta basoko egurrekin 20:00ak aldera sua piztuko dute gainean saltoka ibiltzeko. Ordu bat geroago elkarteko zuzendaritzako kideek mandarrak jantzi eta txistorra, urdaia eta saiheskiak prestatuko dituzte.

IHABAR

OTAMENA ETA SALTOAK

San Juan kalearen hegoaldean, autobiki sarrera ondoan dagoen aparkalekuan ospatzen dute ihabardarrek udako solstizioa. 21:30 aldera elkartuko dira bihar eta txistorra eta sardinak ontzeko sua prestatuko dute. Otamena sagardoarekin eta ardoarekin lagunduko dute. Ondoren su beraren gainean saltoka ibiliko dira.

IRAÑETA

MERENDEROAN HITZORDUA

Frontoiaren eta Txapel Azpi elkartearen atzeko aldean dagoen merenderoan elkartuko dira irintarrak bihar 20:30ak aldera. Udako solstizioko ospakizunak tripak

ongi betez hasiko dute. Horretarako urdaia eta bestelakoak prestatuko dituzte. Hala iluntzera arte egonen dira eta orduan sua piztu eta haren gainetik saltoka ariko dira zorriyek eta partzak, sarna fuera! esaera errepikatuz.

ARRUAZU

ERREPIKAREN ERRITMORA SALTOKA

Arbazuarrek arratsaldean suak prestatzeko elkartuko dira. Udalak frontoiaren ondoan sua piztuko du eta han txistorra eta urdaia onduko dute. Horrekin batera auzatean gazta eta ardoa banatuko dute iluntzean. Su handia 22:00etan piztuko dute eta orduan ezki-la errepika hasiko da kanpadorrean. Hara nahi duen guztiak igotzeko aukera izanen du. Bitartean su gainean saltoka ariko dira.

LAKUNTZA

SUA ETA EZKILAK

Lakuntzan auzoko aldamenak elkartu eta elkarrekin afaltzeko ohitura dute biharko egunarekin. Eta afarien modura, suak ere auzoka pizten dira 22:00etatik aurrera. Hala, gauean, aldamenak elkarrekin ariko dira su gainean saltoka. Baina alturako bilgunea ere izanen dute lakuntzarrek: ezki-la-dorrea. 22:00etatik 24:00etara ateak zabalik izanen dira eta nahi duen guztiak igotzeko aukera izanen du. Behin goian ezki-lak jotzeko aukera izanen dute. Gauerdiekin batera despeditu eta han bertan auzatea izanen da.

Ogiaren artisauek
PORTUKO okindegia
goza dezazuela
San Juanetan
ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

Arrautsek
-TABERNA-
Ongi pasa
festak!
Kale Nagusia 5
31839 Arbizu
948 46 01 29

Sorgiñak
taberna
LAKUNTZA
948 576 357

Txalaparta
Ondo Pasa San Juanetan
Taberna
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

UNANU

SALTOKA!

Su gainean saltoka ibili nahi duten unanuarrak mediku-kontsultategiko plazan elkartuko dira iluntzean. 20:30ak aldera bi su piztuko dituzte; txikia, haurrendako eta nahi duten adinduendako eta handia, helduendako. Nahiko salto eta brinko egin eta gero afaria izanen da.

DORRAO

GAUR ETA BIHAR ERMITARA

Herrira eramaten duen errepedeko bidegurutzearen ondoan dago dorrobarren San Juan ermita, Nenau despulatuko eliza zena. Gaur eta bihar han elkartuko dira. Gaurko hitzordua 19:00etan da.. Ermitan bezperak eta arrosarioa izanen dira eta hura despeditu ondoren kontzejuak gazta, ogia eta ardoa banatuko ditu.

Bihar, berriz, 10:30ean da hitzordua ermitan, mezarako. Haren ondoren, auzatea izaten da. Eta Itur-aldea elkartean gosaria eta bazkaria izanen dira. Ohiturari segituz, kontzejuak herriko etxe bakoitzeko pertsona bat gonbidatu du bazkaltzera. Bakarren batek gehiago joan nahi izatekotan berak ordaintzen du. Iluntzean, udako solstizioa ospatzeko, autobus geltoki inguruan sua piztuko dute. Besetik, San Juan ermitara dorrobarrek eginen duten hurrengo bisita irailaren 8an izanen da, kofradiakoak joanen direnean.

LIZARRAGA

INTXAURRETAN SUA

Ergoienako udaletxearen parean, Intxaurreta kalean piztuko dute sua bihar iluntzean. Karrikako aldamenak izanen dira hura piztuko dutenak. Haren gainean saltatuko dute eta ondoan afalduko dute. Garai batean herriko zazpi karriketan eginen ziren suak. Esaerak ere bazituzten: purrin San Juan edo ipurdin San Juan. Eta haien ondoren beste esaldi batzuk etor zitezkeen: salero pepe; Unanuko tripotak lehertzeko; Etxarriko tripotak lehertzeko; Lizerraakuek aungi izeteko; Li-



zerrakuek aungi atiatzeko; subiek ez piketzeko; ergun idiyek ez ozka itteko; tximitzek ez pikatzeko; arkosuek ez pikatzeko; zorriyiek eta partzak hiltzeko...

ETXARRI ARANATZ

SU, SU ETA SU

Karrizak karrika, zeinek bere sua prestatuko du iluntze aldera eta harren inguruan elkartuko dira aldamenak. Batzuk eta besteak su gainean saltoka ibiliko dira eta horretan ari direla zorriyiek eta partzak itzetzeko esaera esanen dute. Su batzuen inguruan ez da jatekorik faltako.

BAKAIKU

BI EGUNEKO OSPAKIZUNAK

Lanbata eta domekia izanen dituzte Bakaikun San Joanak ospatzeko. Lanbatean, 17:00etan, Bakaikuko Gazte Asanbladak antolatuta maizta jasoko da plazan, festetaino zutik izanen dena. Lanak eginda merezitako auzatea izanen da. Udalak 20:00etan auzoan auzatea eskainiko du. Akordeoilariak girotuko du elkarretaratzea. Iluntzean gazte asanbladak San Juan plazan sua piztuko du. Han elkartuko dira bakaikuar gehienak. Baina Hangoian eta Hanben su bana ere pizteko ohitura dute.

Domekia guztian haurrendako gaztelu puzgarria izanen da eskolako belardian. 13:00etan, berriz, akordeoilariak girotutako auzatea izanen da San Juan plazan. Horren ondoren, ohi bezala, jubilatuek euren urteroko bazkaria eginen dute. 17:30ean, haurrei opilak, txokolatea eta goxokiak banatuko zaizkie auzoan.

ITURMENDI

EPAITZEN ONDOREN, SUA

Ohiturari segituz, San Joan bezperan Iturmendiko Udalak herritarren artean epaitzak banatuko ditu. Aurtengo negua gogorra izanda ere "48 eskaera besterik ez daude, normalean 100 bat direnean" esan digu harrituta Victoriano Gabirondo alkateak. Egur loteen banaketa udaletxena 19:00ak aldera izanen da eta hura despeditu ondoren, Arrano Beltza plazan auzatea izanen da. Iturmendiarrak plazan bertan piztutako suaren gainean saltoka ibiltzeko aukera izanen dute 21:00etatik aurrera. Gosea egin ondoren suaren ondoan herri-afaria izanen da.

URDIAN

KANTA, DANTZA ETA AFALDU

San Juan ermitan elkartuko dira bihar urdiaindarrak. 19:30ean herriaren etxetik ermitarako bidea kalejiran eginen dute, txistulariekin. Neska gazteak, garai bateko jantziak soinean dituztela, dantzari txikiak eta urdiaindarrek osatuko dute segizioa. Mezaren ondoren, ermitako plaza sua piztu eta aipatu neskek, elkarrri eskuak emanda, haren inguruan San Juan kantaita abestuko dute. Kantariei dantzariak hartuko diete lekukoa. Auzatea ere izanen da. Adar muturretan arto koskolak dituzten nesakiek eta mutikiek suarekin jolastuko dute. Ermitakoa despedituta, urdiaindarrek udako solstizioa kuadrilaka edo auzoka afalduz ospatuko dute.

OLATZAGUTIA

ITURRIRA NAHI BADUZU ETORRI

Olaztiarrek festa eginen dute itur bedeinkatuaren edo batueko iturriaren inguruan, Altzania magalean. 10:30ean Burundar Txistulariak kalejira eginen dute herrian barna eta musika deia entzundakoan haiekin batera iturriantz abiatuko dira olaztiarrek. 11:00etan hamaiketako izanen da elkartutako guztiendako. Ondoren, kuadrillek euren mahaia jarri eta bazkaria prestatzeari ekinen diote. 14:30ean eseriko dira mahaira. Handik jasotzeko musika La Cigarra txarangak joko du. Basokoak eginda, ospakizunak herrian segituko du. 19:30ean sardina-jana izanen da Vicente Argomaniz plazan. Iluntzearekin batera suak piztuko dira, haien gainean salto egiteko.

ZIORDIA

ITUR BEDEINKATUAN HASIKO DIRA OSPAKIZUNAK

Garai bateko olaztiarren eta zior-diarren arteko ospakizunak gogoratu nahian, joan den urtean Zior-diko Udalak udako solstizioko ospakizunak itur bedeinkatuaren edo batuekoan hasi zituen. Eta esperientzia ona izan zenez, errepikatzea erabaki dute. Hala, 18:00etan Altzania magaleko iturriaren ondoan auzatea izanen da. Handik jaitsi eta txipudira joanen dira, III. herri kirol txapelketa jokatuko baitute. Parke ederretik mugitu gabe, 21:30ean, herri afaria izanen da. Eta hura despeditzerako gaua ongi sartuta dagoenean, 22:30ean, sua piztuko dute.

JANATXO

Ongi Pasa Festetan

ETXKO BAZKARI ETA POSTREAK
ENKARGU BIDEZ PRESTATZEN DIRA

- Fernando Urkia kalea, 29 - Arbizu -

- 686 654 382 ·
- 666 616 303 ·
- 687 371 939 ·

Mari Jose
ileapaindegia

Arbizu

948 460 912
686 192 252

FLORES S.L.

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

txistor ekologikoa

Ongi Pasa Festak!

Urtubai industriakalea - Telf. - Faxa: 948 460 499 - ARBIZU



ALTSASU

BITAN SAN JOAN

Asteburua udako solstizioa edo San Joan ospatzeko hartuko dute altsasuarrek. Bihar ilun-zean makina bat su piztuko dira herriko kaleetan barna. Hala egingen dutenek suaren oinarri gisa harea geruza lodia jarri beharko dute, haren gainean sua pizteko. Horrela, zorua ez izorratzea lortu nahi du udalak. Eta, horretarako, bederatzi tokitan harea pilak utzi ditu: Pilotajauku, Amandrea (hilerria), Zubeztia, Zelai (Caixa zegoen tokia eta sutegia), Intxaurrenondo (Eroski), Idertzagain (Xagu), Amaia (errotanda), Zumalakarregi eta Iortia (kultur gunea).

Domekarako goizaldean hainbat talde abardiak jarriko dituzte etxeetako balkoietan. Maite den pertsonari lizar adarra jarriko diote. Batzuek loreekin apainduko dute. Horren gustuko ez den pertsonari makala jarriko diote. Ohitura gorde eta sustatzeko Altsasuko Udalak abardi lehiaketa antolatu du beste behin. Jarritako abardiaren argazkia hilaren 26rako aurkeztu beharko da iortia@altsasu.net e-posta helbidera. Saria festetako herri bazkarian bi pertsonendako txartel bana izanen da. Domeka goizean ere iratzeak moztera joanen dira hainbat, ondoren etxe atariak iratze alfonbrez edertuko dituzte.

Eguberaren taldeak, atzera ere, udako solstizioa ospatzeko egitaraua prestatu du. Bihar, 19:30etik aurrera, Foru plazan izanen da. Hasteko sua piztuko dute. Auzatea eskainiko dute. Ekitaldian dantzariak eta musikariak izanen dira ere.

LARUNBATA 23

16:45 Etxajua San Juan plazan, trikitilariak lagunduta. Xaiborren emanaldia eta haurrendako sorpresak San Juan kalean.

18:30 Txokolate-jana Diamantes Negros taldeak girotuta.

19:30 Udaltzako, Altsasuko txistulariekin batera, udaletxetik San Juan ermitara abiatuko da.

19:30 Udako solstizioa ospatzeko festa, Foru plazan. Eguberaren taldeak antolatuta.

20:00 Auzatea.

20:00 Festaren hasiera: San Juango ermitan sua piztea.

20:30 Herriko suak pizteko etxaju iragarlea. Kalejira eta auzatea Foru plazan.

21:30 Beti Jai bikoteak suak dauden kaleak girotuko dituzte zehar.

23:00-02:00 Dantzaldia Millennium taldearekin, San Juan kalean.

DOMEKA 24

20:00 Zortzikoa Altsasuko txistulariekin eta auzatea, Foru plazan.

23:30 Dantzaldia Haize Berriak bandarekin, Foru plazan.

UHARTE ARAKILGO SAN JOANAK

OSTIRALA 22

18:00 Festei hasiera emango dien suzuria. Uharteko Arakilgo "Falejoleak" zantzar taldearen eskutik.

18:30 2017an jaiotako haurrei omenaldia eta zapi banaketa. Segituan, Donibane elkarteak eskainitako auzatea.

19:30 Uharteko Arakilgo konpartsa eta gaiteroez lagunduta San Migueli ongi etorria.

20:00 Meza.

21:00 8. Patata tortilla lehiaketa. (Tortilla

20:40etik 21:00etara aurkeztu behar dira). Jarraian hauen dastaketa.

22:00 Zezensuzkoa

00:30-02:00 Dantzaldia WTO-can2 La Polla taldearekin.

02:00-04:00etara Dantzaldia Jo ta Txo dj-rekin.



herriko kaleak girotuko ditu.

20:00 Auzatea.

22:00 San Joan suak. Uharteko Zantzarrekin lagunduta.

00:30-04:00 Dantzaldia Kapri taldearekin.

LARUNBATA 23

Erraldoi eta buruhandien konpartsa

13:00 Aizkolariak (Jaime Gorriti eta Iker Gorriti).

14:30 Herri parrillada, plazan (ogia, ardoa, mahaia eta aulkiak udaletxeak jarriko ditu).

18:00 Elektro Txufla taldeak

IGANDEA 24

12:00 Meza.

Erraldoi eta buruhandien konpartsa.

13:00etan Uharteko zortzikoa. Auzatea.

14:30 Haurren bazkaria.

16:00-18:00 Haurrendako parkea, frontoian.

18:00 Areto futboleko 3x3 txapelketa.

19:15 Txokolate-jana, San Juan plazan.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Dantzaldia Anulacion dj-rekin.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-04:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

ASTELEHENA 25

10:30 Zamartzerako erromeria, Uharteko konpartsa eta gaiteroekin lagunduta.

Jarraian auzatea.

14:00 Jubilatuen bazkaria, Andoni Gastaminzak girotuta.

18:15 Dantzak, Galtxorratz taldearen eskutik.

19:00 Aralar Mendi elkarteak eskainitako sardina-eta txistorra-jana.

20:00 22:00etara Dantzaldia Puro Relajo taldearekin.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-04:00 Dantzaldia Iratzar taldearekin.

Oharra: Donibane jubilatuen elkarteak proposatutako Zamartze egunerako, Txistorra-jantera eskatzen da ohitura hau berreskuratzeko.

Udako solstizioa ospatuko da larunbatean, San Joan gau magikoa. Sakanako hainbat herritako txokoetan sua izanen da protagonista, eta suaren inguruan afaltzera bilduko dira herritarrek.

Zure herriko ohitura, bitxikeria edo giroa ezagutarazi nahi badituzu, partekatu itzazu Guaixe-rekin gau magikoan ateratako argazkiak. Sartu guaixe.eus-en, Partekatu San Joanetako zure argazkiak!

ARBIZUKO SAN JOANAK

LARUNBATA 23

SAN JOAN BEZPERA

19:30 Suziria.
19:30 Jaiak txaranga.
20:00 Brindisa plazan.
20:00 Bezperak San Juanen. Arbizuko eta Etxarriko abeslari-ekin.
20:30 Marilonbreren zaldiya.
21:30 Jaitiera Jaiak txaranga-ekin.
23:30-04:00 Dantzaldia Triki-dantz taldearekin.

IGANDEA 24

SAN JOAN EGUNA

10:30 Diana Jaiak txarangarekin.
11:30 San Juanera igoera txarangarekin.
12:00 Meza nagusia San Juanen.
12:30-14:00 Puzgarriak eta buruhandiak plazan.
13:00 Aate (Udala).
13:00 Elai-alai dantza taldea.
13:30 Txaranga herrian.
17:00 Izaskun Mujika ipuin kontalaria.
17:00 Kalejira txarangarekin.
18:30 Ezkurdiari omenaldia. Pilota partida, 4 eta erdiko San Fermin Torneoa.
19:00 Tio Teronen semeak,

dantza ikuskizuna.
20:00 Aate.
20:00 Lehiaketan sari banaketa.
20:30-22:00 Dantzaldia Laket taldearekin.
24:00-02:00 Dantzaldia Laket taldearekin.

ASTELEHENA 25

JUBILATUEN EGUNA

10:30 Dianak herriko fanfarrearekin.
12:00 Jubilatuen meza.
12:00 Pilota partiden erakustaldia (Danimarka - Arbizu).
12:30-14:00 Puzgarriak eta buruhandiak plazan.
12:00 Aate (Udala).
12:30 Jubilatuen luntxa.
13:00 14:30era Puro Relajo mariatxiak.
14:30 Arbizu gora gora kantakantu bazkaria.
16:30-18:30 Haurrendako Adur herri kirol jokoak.
20:00 Aate.
20:30-22:00 Musika.
22:00 Zezensuzkoa.
23:00-02:00 Dantzaldia Gaitzerdi taldearekin.

ASTEARTEA 26

KINTOEN EGUNA

10:00 Pilota txapelketa.
11:00 Kintuek pixket eskien.
11:30 Diana. Herriko txistulariak.
12:30-14:00 Puzgarriak eta buruhandiak plazan.
12:30 Aate (Jubilatuak).
12:30 Kulturartekotasun eta sukaldaritza tailerrak (Siria-Euskal Herria). Ongi etorri errefuxiatuak.
16:30-18:00 Zirko basatia zirko ikuskizuna eta tailerra.
19:00 20:30era Arbizuko musikarien kontzertua.
20:00 Aate.
21:30-22:30 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
23:00-02:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

ASTEAZKENA 27

GAZTE EGUNA

11:30 Diana. Herriko txistulariak.
12:00 Aate (Argi-bidea) eta pregona.
12:30 Mosaikua.
12:30 14:00etara Puzgarriak eta buruhandiak plazan.
13:00 Altsasuko gaztien aldeko brindisa eta trikipoteua.
14:30 Gazte bazkaya.
17:30 Jolasak herri guziandako...
18:00 Kalejira aldarrikatzailia

Argi gurdia.
18:00 Piperropil tailerra.
20:00 Aate.
23:30 Kontzertuak: Koban + Tocan2 La Polla. Ekitaldia.

OSTEGUNA 28

HAURREN EGUNA

11:30 Diana. Herriko txistulariak.
12:00 14:00etara Haurren jolas parkea.
12:30 Aate (Aldabide).
12:30-13:30 Arbizuko Trikiti-

lariak.
15:00 Haurren bazkaria.
16:30-18:30 Haurren jolas parkea.
17:00 Mus txapelketa.
19:00 Musika.
20:00n Aate.
21:00-22:30 Dantzaldia Ingoaldeu taldearekin.
22:00 Zezensuzkoa.
23:30-02:00 Dantzaldia Ingoaldeu taldearekin.

Oharra: Festak ostiralean bukatuko dira.



**arbizuko
kanpinoko
taberna**

ONDO PARA JAÏETAN!

Erreserbak: 635 093 140

Eguneko menua
Asteburuko
menu berezia
Pintxoak
Bokatak

Ono para jaïetan!

SUANIZO
TABERNA-SIGARDOTEGIA
948 460 404 Arbizu

LONBREN denda
Zure eguneroko denda

Aliprox

ONGI IBILI SAN JUANETANI!

Tel.: 948 460 330
Kale Nagusia · ARBIZU



June Kintana, taldeideekin. GRUPOMPLEO

Kintanaren Grupompleo bosgarrena Kluben Artekoan

ATLETISMOA June Kintana hirugarrena izan zen disko jaurtiketan eta puntu asko eman zizkion bere klubari

Asteburuan Emakumezkoen Kluben Arteko Atletismo Txapelketako 3. jardunaldia jokatu zen Castellonen. June Kintana disko jaurtitzailer bakaikuarraren Pamplona Atletico Grupompleo taldea aritu zen lehian, Valencia Esports, Playas de Castellon, FC Barcelona, Simply-Scorpio 71, Atletico San Sebastian, AA Catalunya eta Cueva de Nerja-UMA taldeekin batera.

Txapelketa ona egin zuten nafarrek, eta Castellonen eta aurreko bi jardunaldietan egindako lanari esker, azkenean Kluben Arteko Atletismo Txapelketako Ohorezko mailan bosgarrena sailkatu da Pamplona Atletico Grupompleo (75,5 puntu), Valencia Esports (137 puntu), FC Barcelona (123 puntu), Playas de Castellon (116 puntu) eta Simply-Scorpio 71 (71 puntu) taldeen atzetik. Lehendabiziko hiru taldeak gainditzea ia ezinezkoa da, baina laugarren postua kolokan izan zuten Simply-Scorpio 71 eta Pamplona Atletico Grupompleo taldeek, lehia estua izan baitzuten. Azkenean lehenak gailendu ziren.

Lortutako bosgarren postu horretan June Kintana disko jaurtitzailer bakaikuarrak lortutako 3. postuak pisu nabarmena izan zuen.



Igandean, eguraldi eguzkitsua iragarri dute eta Trikutraila gertutik ikusteko gonbita egin dute antolatzaileek.

Trikutraila, lepo

MENDI LASTERKETAK Igandean jokatu da, 9:30etik aurrera, Etxarri Aranazko kanpinetik. 21 km eta 1.400 m-ko desnibel positiboa duen proba da, eta bertan aritzeko 350 dortsalak agortuta daude. Bezperan Trikularunbata antolatu dute

Igandean jokatu da Trikutraila, Etxarriko kanpinetik abiatuko den 21 kilometroko proba, 1.400 metroko desnibel positiboa duena. Proba antolatzeko Etxarriko Kanpinaren, Etxarri Aranazko Udalararen, Nafarroako Mendi Federazioaren eta Euskal Mendizale Federazioaren laguntza eta hainbat babesleren babesa izan du Triku Trail kirol taldeak. Aurten, aurreko urtean ez bezala, Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako eta Euskadiko Koparako puntuagarria izango da.

Harizti, pagadi eta trikuharrietan

Ibilbidean ez da aldaketarik egongo, ez baitu behar, hori baita Trikutrailaren xarma. Horrela, harizti, pagadi eta trikuharrietatik barna ibiliko da Triku Trail, paraje zoragarrian. Ez da mendi punta garaietara igotzen, Etxarriko beheko basoa du oinarri probak. "Sekulako basoa dugu, korrika egiteko espeziala. Gorabeheratsua da, malda gogorak ditu, suabea-

goak... ibilbide zoragarria da, gogortasun handia ematen dio probari eta jendeak gustuko du. Horregatik mantentzen dugu ibilbidea" diote antolatzaileek.

Horrela, lasterketa Etxarri Aranazko kanpinetik abiatuko da 9:30ean. Trikuharrien ibilbidea da lasterketaren oinarria, luzatuta. Proba zorrotza da, baina ezberdina. Izan ere, Trikutraila gehienbat basoan garatzen da. Kanpinetik abiatuta, hariztien ibilbidetik hariz eta pago artean ia estalita ibiliko dira korrikalariak, itzalpean. Aurrerago, Maitzegurretik pasatuko dira korrikalariak, eta segidan Auntzetxetik. Ibilbidean aurrera eginez, Axioren putzua pasatu ondoren Lizarrustira helduko dira. Ondoren Txaradigorri trikuharria joko dute. Horixe izango da eremurik gogorrena. Hortik Hirumugeta igoko dute, Otxentara jaitsi eta Fagamendi igotzeko. Handik hariz zaharren ibilbide zoragarritik jaitsiko dira, eta Etxarriko kanpineko helmugan despedituko da proba.

Dorsalak, agortuta

Probak 350 parte-hartzailearen muga dauka eta ekainaren 18tik ez da dorsalik geratzen. Agortuta daude, probak duen erakarritasunaren isla. Korrikalariak zaindu nahi dituzte, zerbitzuekin eta lasterketarekin gustura geratu daitezten, eta horregatik ez dute parte-hartzaileen muga zabaltzen.

Aurreko urtean ere probako dorsalak agortu ziren eta Ander Iñarra lezotarra (1:43:42) eta Maite Etxezarreta azpeitiarra (2:10:12) izan ziren azkarrenak. Aipatzekoa da 43 sakandarrek osatu zutela proba eta Aritz Munarriz eta Erkuden San Martin etxarriarrak izan zirela lehenak. Trikutrailen errekorra 2016an ezarri zuten Walther

AURREKO URTEAN 43 KORRIKALARI SAKANDARREK LORTU ZUTEN TRIKUTRAILA BUKATZEA

Becerrak (1:42:58) eta Virginia Perezek (2:07:08).

350 korrikalarik hartuko dute irteera aurten, eta iganderako 26-28 graduko temperaturak iragartzen direnez, beroa izango da korrikalarien arerioetako bat. Hortaz, bereziki hidratazioa zaindu beharko dute korrikalariak. Hornidura guneek erraztuko dute hori. Ildo honetan, dena behar bezala ateratzeko makina bat boluntario ariko dira lanean.

Kanpinean eta probako inguruetan giro oso polita sortzen da eta eta proba jarraitzera animatu dituzte sakandarrak.

Sari ederrak

Antolatzaileek 1.200 euro banatuko dituzte sarietan. Lehendabiziko gizonak eta emakumezkoak txapela, trofeoa eta 300 euro jasoko dituzte, bigarrenak 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenek 100 euro eta trofeoa. Lehen beranoendako, lehen sakandarrendako eta etxarriarendako ere trofeoak izanen dira. Horretaz gain, korrikalari guztiek opari poltsa jasoko dute eta proba ondoren auzate ederra egonen da proba jarraitzera hurbiltzen diren guztiondako.

Trikutxikia

Igandean, korrikalariak proba nagusian dauden bitartean, etxeko txikiendako Trikutxiki proba ez lehiakorra antolatu dute goizeko 9:45ean, Etxarriko kanpinaren inguruetan. Izan ere, etxeko txikiendekin distantzia sinbolikoa duen probatxo egi-tea ideia polita da. Izena igandean bertan eman beharko da eta bertan aritzera animatu dituzte gaztetxoak.

Triku larunbata, bezperan

Trikutrail lasterketan parte hartzera datozen korrikalariak, haien familiei eta Etxarriko kanpinera hurbiltzen diren guztiei begira, aurten lehenengoz Triku larunbata antolatu dute, kanpinekoen laguntzarekin. Larunbatean, egun guztian bar-na, ping-ponga, rokodromoa, tenisa, jokoak, altxorak, duatloia eta beste izanen dira.

trikutrail.com

Trikutrail probaren web gune berria: probako informazio guztia, Trikutrail denda, ibilbideen tracka eta beste. Facebookean ere (Trikutrail).



Beriaingo puntako lainoa izan ezik, korrika egiteko eguraldi paregabea egin zuen proban. Argazkian, Alatz Agirre arbizuarra.

Gasanz lehen sakandarra Alberdiren Tritoienan

MENDI LASTERKETAK 74 partaide izan zituen Arbizuko kanpian jokatuak II. Tritoienak (19 km), 44 lasterketan eta 30 mendi martxan. Beriaingo punta lainoan zegoen eta horrek eragina izan zuen proban

Larunbatean jokatu zen Arbizuko kanpinak eta Dantzaleku Sakana atletismo klubak Ergoienako Udalaren eta hainbat babeslerekin antolatutako II. Tritoienan mendi lasterketa. Aurten ibilbide berria estreinatu zuen probak: Arbizuko Kanpinetik atera eta Ondatzera iritsi behar ziren korrikalariak, handik Unanuko herrira jaitsi, eta Unanuko Beriaingo puntara iritsi. Aurten ibilbide berria estreinatu zuen probak: Arbizuko Kanpinetik atera eta Ondatzera iritsi behar ziren korrikalariak, handik Unanuko herrira jaitsi, eta Unanuko Beriaingo puntara iritsi. Aurten ibilbide berria estreinatu zuen probak: Arbizuko Kanpinetik atera eta Ondatzera iritsi behar ziren korrikalariak, handik Unanuko herrira jaitsi, eta Unanuko Beriaingo puntara iritsi.

Ibilbidea berritzeaz gain, parte hartzeko moduan bi aukera egon ziren. Batetik, ibilbidea korrikan egitea eta, bestetik, ibilbidea oinez egitea, mendi martxa baten antzera. 44 korrikalari animatu ziren lehen aukeran eta 30 inguru bigarrenean. Horrela, goizeko 8:00etan martxistak atera ziren eta 9:30ean, aldiz, korrikalariak. Eguraldia polita zen, korrika egiteko apro-

posa, baina Beriaingo gainean kristoren lainoa zegoen, estalia zegoen Beriaingo punta. Jakina, horrek makina bat zailtasun sortu zizkien korrikalariari. Hala ere, sekulako denborak egin zituzten korrikalariak, espero baino azkarragoak.

Gizonezkoetan Jon Alberdi Etxabe zestoarrak aurrea atera eta sekulako lasterketa egin zuen. Alberdik aurreikuspenak hobetu eta ordu bat eta 43 minutu behar izan zituen (1:43:11). 6 minutu pasa atera zizkion aurreko astean Lakuntza-Aralarren hirugarrena sailkatu zen Feli Solanas sestaoarrari (1:49:39). Ukarko bizilaguna den Teddy Garzon izan zen hirugarrena (1:50:27). Aipatzekoa da sakandar azkarrena Javi Gasanz gazte altsasuarra izan zela, helmugan bosgarrena (1:56:43).

Emakumezkoen kasuan Aina- ra Uribarri zihoan aurretik, 20 segundo inguruko aldearekin, baina Beriaingo gaineko lainoarekin nahasi eta gero, 6-7 korri-

kalari inguruk bidea galdu zuten eta hor hartu zuen aurre Ainhoa Jauregi donostiarrak. Horrela, aldea atera eta ongi kudeatu zuen abantaila, helmugara bakar-bakarrik iritsita (2:16:22). Lau minutu pasako aldea atera zion Bea Martinez irundarrari (2:20:26) eta 8 minutuko Aina- ra Uribarri oñatiarrari (2:24:53).

Ezkurdiak eman zituen sariak

Bukaeran korrikalariak, oinezko martxan parte hartu zutenek eta probaren antolaketan aritu ziren boluntarioek auzate ederra zuten zain. Joseba Ezkurdia pilotari arbizuarrak banatu zituen sariak: bi txapeldunei txapela, Unanuko ihoteetako kanttola, Pierola upategiko 5 litro-

ESPERO BAINO DENBORA AZKARRAGOAK EGIN ZITUZTEN KORRIKALARIEK

ko ardo botila eta produktu lotea eman zizkien; bigarrenen produktu lotea eta Arbizuko kanpianeko etxetxo batean asteburuko egonaldia; eta hirugarrenen produktu lotea eta Arbizuko kanpian bi pertsonendako afaria. Horretaz gain, korrikalari guztiak produktu lotea jaso zuten eta sari berezia izan zuten proba osatu zuen korrikalari gazteenak eta edadetuenak. Lehen arbizuarrak, helmugan seigarrena izan zen Alatz Agirrek, ardo kaxa jaso zuen. Eta boluntarioendako produktu lotez osatutako poltsa bana izan zen.

Proba jarraitzen oso giro ona egon zen eta antolatzaileek adierazi zuten, hurrengo urtean ere Tritoienan parte hartzeko aukera izanen da. Beriaingo ardatz hartuta, Beriaingo duen erakarpen horrekin, ez da harrizkoa.

Sakandarrak Tritoienan

Gizonak

1. Jon Alberdi (Zestoa): 1:43:11
5. Javi Gasanz (Alts.): 1:56:43
6. Alatz Agirre (Arb.): 1:58:05
7. Iker Flores (Urd.): 1:59:19
8. Fran Araña (Arb.): 1:59:34
10. J.Bereziartua (Ats.): 2:00:20
12. Joseba Iza (Arb.): 2:03:15
13. Juan Larrea (Ats.): 2:06:59
15. M.Berastegi (Arb.): 2:08:08
20. Kepa Lodi (Araia-Arb.): 2:12:15
24. J.Salgado (Alts.): 2:16:15
26. Asier Leitza (Arb.): 2:18:18
30. Ivan Martin (Arb.): 2:29:01
32. P. Moreno (Alts.): 2:29:42
37. Jon Araña (Arb.): 2:46:26

Emakumeak

25. Ainhoa Jauregi: 2:16:22



Haizea, podiumean. LEA-ARTIBAICO HITZA

ATLETISMOA Haizea R. de Alda Lasterbideko podiumean

Igandean jokatu zen Lasterbidean, urtero euskal preso politikoaren eskubideak aldarrikatzeko ospatzen den herri lasterketa. Aurten Ondarroan jokatu zen eta guztira 642 korrikalariak osatu zuten kostaldeko herriko kaleetan barna 7,2 km zituen lasterketa.

Irabazlea Antton Belaustegi lekeitiarra izan zen (24:44). Unai Razkin irurtzundarra izan zen Lasterbidean lasterketan sailkatu zen sakandar bakarra eta 62. postuan sartu zen helmugara (30:21). Emakumezkoetan Janire Arribalzaga gernikarra gailendu zen (29:30). Aipatzekoa da Haizea Ramirez de Alda altsasuarraren lana: probako bosgarren emakumea izan zen, 77.a sailkapen orokorrean (31:19), baina bere mailan, emakumezkoen senior mailan, hirugarrena izan zen.

Aipatutako korrikalari sakandarez gain, Uxue Galartza iturmendiarra 433.a sailkatu zen (42:07) eta Maddi Urrea irurtzundarra 509.a (43:56).

ARROPA, OINETAKO ETA EHUNEN BILKETA

HURRENGO BILKETA EGUNA:

Uharte Arakil: Ekainak 26 eta 28

BIRZIKLAKETA LABORATEGIA SAKANA

birziklaketalab.blogspot.com

948 469 206

Mank
s a k a n a



Joseba Ezkurdiak sanferminetako lau t'erdiko partida jokatu du etzi festetan murgildua dagoen Arbizun. ASPE

Ezkurdia omenduko dute Arbizuko San Juanetan

PILOTA Igandean, San Juan egunean, Aspek jaialdia antolatu du Arbizun (18:30). Sanferminetako lau t'erdiko torneoaren barruan Ezkurdiak Iribarria izango du aurkari eta Arbizuko pilotariari omenaldia egingo diote

Joseba Ezkurdiak arbizuarrak Jose Javier Zabaleta etxarrendarrarekin batera Binakako Pilota Txapelketa irabazi zuen aurtun. Arbizun ederki asko ospatu zuten sakandarren txapela, baina Arbizuko San Juan festetan omenaldi berezia egin nahi izan diote herriko pilotariari. Horrela, Aspe Sanferminetako lau t'erdiko torneoaren partida ekarri du Arbizura festetako egun handian, igandean, San Juan egunean. 18:30ean hasiko da jaialdia, Arbizuko kiroldegian, eta Joseba Ezkurdiaren aldeko omenaldia izan nahi du jaialdi honek.

Hasteko, Ugalde eta Irustaren kontra ariko dira P. Etxeberria

eta Adur Lasa etxarriarra, Lasa IV.a. Ondoren, Joseba Ezkurdiari omenaldi beroa egingo diote herritarrek. Segidan, Sanferminetako lau t'erdiko txapelketaren barruan, Aspeko adararren final laurdenetan, Joseba Ezkurdiak Iker Iribarria izango du aurkari. Irabazleak ekainaren 29an Erik Jakaren edo Altuna III.aren kontra jokatu du, eta partida hori irabazten duenak uztailaren 7an Sanferminetako lau t'erdikoaren finala jokatu du Asegarceko adarreko ordezkariaren kontra.

Sarrerak salgai

Arbizuko jaialdiko sarrerak salgai daude Arbizuko udaletxean

edo Eroskin. Bestela, partidaren egunean bertan txarteldegian lortzeko aukera izango da.

Pilota eta herri kirol gehiago

Arbizuko San Juan festetan igandekoa ez da pilota jaialdi bakarra izanen. Astelehenean, 12:00etan, arbizuarren ordezkari bat Arbizuko kanpinean egonaldia egiten duten daniarren ordezkari bat baten kontra ariko da pilotaka, ikusmin handia sortu duen ekitaldia. Horretaz gain, asteartean, 10:00etan, txikien pilota txapelketa izanen da. Eta ostiralean, 18:00etan, Emarri-Emakume dema antolatu dute, herri kirolak arbizuarrakin.



Finalistek argazkia atera zuten sari-ematea eta gero. UTZITAKOIA

Altsasuko Pilota Goxua txapelketak baditu txapeldunak

PILOTA Iregitarrek, Gelbentzutarrek, Igoa-Alonsok eta Lopez de Zubiria-Garziandiak jantzi zituzten txapelak

Aurtengo Altsasuko Pilota Goxua Txapelketa 35 bikotek hartu dute parte: 1. eta 2. mailan zortzi bikotek, 3. mailan 14 bikote eta aurtun lehen aldiz antolatu duten emakumezkoen mailan 5 bikotek. Ligaxkaren ondoren txapelketaren azken txanpa heldu zen eta igandean despeditu zen txapelketa, final ikusgarriekin.

Giro bikaina

Altsasuko auzipetuei babesa azaltzeko, finalistek Altsasukoak Aske kamisetak jantzi zituzten. Partidak jokatu bitartean Burunda frontoian bertan mokadutxoren bat hartzeko aukera izan zen eta gustura ibili ziren bildutako guztiak. Finalei dago kienez, 3. mailan Iregitarrek irabazi zuten, 2. mailan Gelbentzutarrek, nesken mailan Igoak eta Alonsok eta 1. mailan Lopez de Zubiriak eta Garziandiak.

Pilota goxua finalak

Burunda pilotalekuan jokatuako finalen emaitzak:

3. maila

Pleito-Ondatz 6 / Iregi-Iregi 18

2. maila

Jauregi-Barandalla 12 / Gelbentzu-Gelbentzu 18

Neskek

Igoa-Alonso 18 / Aldaregia-Iturain 5

1. maila

Mazkieran-Alustiza 16 / Lopez de Zubiria-Garziandia 18

Asegarcekoen kontzentrazioa

PILOTA Asegarce taldeko pilotariak, teknikariak eta langileak Sercotel Villa de Laguardia hotelean egon ziren bilduta, atzora arte. Atsedean hartzeaz gain, kirolari lotutako hitzaldiak eta formazioa jaso zituzten eta, besteak beste, hurrengo denboraldirako argazki ofizialak aterako zituzten. Tartean zegoen Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarra.



ASEGARCE

PILOTA Olo eta Bergera San Esteban txapelketako finalera

Asteburuan 27. San Esteban Pilota Txapelketako finalerdiak jokatu ziren Barañainen.

Senior mailan Legutio klubeko Zuasti eta Resano bost tantotan utzi zituzten Irurtzun klubeko Oloko eta Bergerak, sekulako partida egin eta gero. Horrela, txapelketako final handirako sailkatu ziren sakandarrek. Bestalde, senior mailako

beste finalerdian Oberenako Jamar eta Aldabek 22 eta 19 irabazi zieten Paz de Zigandako Vidani eta Telletxeari.

Hortaz, Oloko eta Bergerak Jamar eta Aldabe izango dituzte arerio San Estebaneko senior mailako final handian. Finalak larunbatean jokatu dira, goizeko 9:30etik aurrera, Barañaingo Retegi pilotalekuan. Guztira sei final izango dira jokatu direnak: benjaminena, kimuena, haurrena, kadeteena, jubilenena eta seniorrena.



Kadeteen tropela, zirkuituaren lehen buelta bukatzen. J. BARADO

Arzuffi, Escalera eta Maioz onenak Lakuntzan

TXIRRINDULARITZA II. Lakuntzako Emakumeen Trofeoan parte hartu zuten txirrindulariek sekulako ikuskizuna eskaini zuten

Emakumezkoen lasterketak gizonenak bezain lehiatuak, hunkigarriak eta ederrak direla argi geratu zen, beste behin, Lakuntzan. Izan ere larunbatean Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatutako II. Lakuntzako Emakumeen Trofeoan parte hartu zuten txirrindulariek puntako ikuskizuna eskaini zieten bertan bildu ziren txirrindulazale guztiei.

Lasterketa berezia izan zen. 15:30ean kadete mailako txirrindulariak abiatu ziren, 37 km-ko ibilbide bat osatzeko. Elite mailako txirrindulariek 16:45ean hartu zuten irteera, 65 km-ko proba osatzeko. Junior mailakoak aurrekoen lasterketara gehitu ziren 12,5 kilometroan, 54 km-ko lasterketa egiteko. Proba hauek guztiak Aralar klubak prestatutako bi zirkuitu konbinatzen

egin ziren. Lehen zirkuitua Lakuntza eta Arruazu artekoa zen, 6,3 km-koa, eta, bestea, Lakuntza, Arbizu, Lizarragabengoa eta Etxarri artekoa, 11,3 km-koa. Zirkuitu horiek erabiliz osatu ziren probak eta Lakuntzan bildutako txirrindulazaleek gozatu ederra hartu zuten, txirrindulariak behin eta berriz pasa zirelako herritik, giro oso polita sortuz.

Escalera eta Arzuffi ihes eginda; Maioz esprintean

Kadeteen mailan Isabella Escalera (Arabarrak) lasterketa bikaina egin zuen, eraso jo eta bakarrik iritsi zen Lakuntzako plazako helmugara (1:05:28). 1:29ko aldea atera zion Bioracer taldeko Sandra Gutierrez. Tropel nagusia 1:49ra sartu zen, Gipuzkoa-Ogiberriko Garazi Estevez buru zela. 17. postuan sailkatu zen Nafarroa Ermitagaña taldean dabilen Maria Beraza uhartearra. Guztira 39 txirrindulari sailkatu ziren eta taldeka Arabarrak izan zen talderik onena. Isabella Escalera irabazlearendako izan zen ere tartekako helmugaren saria.

Eliteen eta juniorren mailan 37 txirrindulari sailkatu ziren. Eliteen mailan Bizkaia-Durango Euskadi Murias taldeko Alice Maria Arzuffi izan zen protagonista nagusia eta bakar-bakarrik iritsi zen Lakuntzako helmugara (1:41:28). 38 segundora sartu zen tropela, Sopela Women's Team taldeko Maria Martins buru zela. Junior mailari dagokionez, Gipuzkoa-Ogiberri taldeko Izarne Maioz izan zen txapelduna (1:42:06). Denbora berean sailkatu ziren Oriako Txirrindularitza Eskolako Naia Amondarain eta Nafarroa Ermitagaña taldeko Irati Puigdefabregas. Tartekako helmugaren saria Aida Nuñorendako izan zen eta talderik onena Bizkaia-Durango Euskadi Murias. Txirrindulari festa bikaina izan zen.

Imanol Erbitiren bederatzigarren Tourra?

TXIRRINDULARITZA Movistar Team taldeak Tourrerako aurre selekzio taldean sartu du Etxeberrikoa

Uztailaren 7an hasiko da Frantziako Tourra, Noirmoutier-en-l'Île. Movistar Team taldeak argi dauka bere hiru izarrak eramanen dituela munduko txirrindularitza probarik onenera: Alejandro Valverde, Nairo Quintana eta Mikel Landa. Tourrean aukera posible guztiak erabili nahi ditu taldeak eta hiru txirrindulariak sasoi onenean iritsiko dira Frantziarra. "A aukera, B aukera eta C aukera ditugu; hori, guretzat, abantaila handia da" adierazi zuen Eusebio Unzueta. Oilarren arteko borroka egonen den edo ez, hori izanen da Tourreko erakarpenetako bat.

Hiru liderrek alboan zein taldekide izanen dituzten ez dute oraindik guztiz erabaki. Tourrean aritzeko aurre selekzio bat egin du Movistar Teamek eta tartean dago Imanol Erbiti arakildarra, Andrey Amador, Daniele Bennati, Nelson Oliveira, Jose Joaquín Rojas, Marc Soler eta Jascha Sütterlin txirrindulariekin batera. Hauetatik bi txirrindulari geratuko dira behin betiko taldetik kanpo. Hiriberriko txirrindularia hautatzen badute, Erbitik bederatzigarren Tourra osatuko luke jarraian, eta guztiak talde berberekin. Ez dago esan beharrik ere talde gizon bikaina dela Erbiti, oso estimatua, dena ematen duen ezkutari bikaina.

Etxeberria Euskadiko txapelduna Larunbatean afizionatuen Euskadiko Txapelketa jokatu zen Seguran. Elite mailako txapelketa Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Victor Etxeberria nafarra izan zen, lasterketan 23 urtez azpiko Ampoioerriko TB taldeko Xabier Murgiondo eta Unai Cuadrado-ren atzetik sartu eta gero. 23 urtez azpiko txapelketan hirugarrena Rural Kutxako Oier Lazkano izan zen.



BURUNDA TXIRRINDULARITZA TALDEA

Quesos Albeniz, erlojupekoko talde kadeterik onena

TXIRRINDULARITZA Tafallan kadeteen eta juniorren Electricidad Alonso Trofeoa jokatu zen igandean, taldekako erlojupekoko. Kadeteek 15 km-ko ibilbidea osatu behar izan zuten eta juniorrek, aldiz, 22,4 km-koa.

Kadete mailan, Burunda klubeko kadeteek lasterketa oso ona egin zuten; ongi jakin zuten talde lana egiten eta euren indarrak mailakutzen

eta 21 minutu eta 20 segundo behar izan zituzten proba osatzeko. Aralar klubeko Intersport Irabia bosgarrena sailkatu zen (22:31).

Jubeniletan Fundacion Lintxu taldea izan zen 22,4 kilometroak azkarren osatu zituena (31:49). Intersport Irabia laugarrena sailkatu zen (33:05) eta Quesos Albeniz zazpigarrena (34:59).



Xota Osasuna taldeko kadeteek pozik ospatu zuten Irurtzunen jokaturako lurralde-faseko finala irabazi izana. JESUS AGUIRRE

Xota Osasuna Espainiako azken fasean ariko da

ARETO FUTBOLA Asteburuan Irurtzunen jokaturako Espainiako Areto Futboleko kadete mailako Txapelketako lurralde-faseko finala irabazi zuten irurtzundarrek

Espainiako Areto Futboleko Kadete mailako Txapelketako lurralde-faseko finalak jokatu

ziren asteburuan. Irurtzunek, esaterako, iparraldeko lurralde-faseko finala hartu zuen. Bertan

lehiatu ziren, Irurtzungo kiroldegian, Xota Osasuna, Zierbena, Cantabriako Mioño, Galizako

Cios Vigo eta Aragoiko Pirineos taldeak. Ligaxka sisteman jokatu zen lurralde-faseko iparraldeko final hau, eta talde guztiak elkarren kontra lehiatu ziren ostiralean, larunbatean eta igandean Irurtzungo kiroldegian jokaturako partidetan. Beraz, areto futbolaren festa bilakatu zen Irurtzun asteburuan.

Ikusgarri aritu ziren

Etxeko taldeak, Xota Osasunak, txapelketa bikaina egin zuen. Vicente Albizuk zuzendutako taldea ikusgarri aritu zen: Cios Vigori 4 eta 0 irabazi zion, Zierbenari 6 eta 0, Pirineos taldeari 5 eta 3 eta Mioñori 10 eta 2. Horrela, irurtzundarrek lurralde-faseko finala irabazi zuten eta hurrengo asteburuan, ekainaren 29an Bartzelonan jokaturako den txapelketako azken fasean, Espainiako Kadete mailako Txapelketako final handian ariko dira. Madrilgo irabazle Inter Movistar, Kataluniako irabazle Barcelona eta Gaztela Mantxako irabazle Toledoko Moprisala izango ditu aurkari txapelketako azken fasean. Beraz, ametsa ez da oraindik bukatu.

Ekainaren 29an, finalerdiak eta ekainaren 30ean finalak

Finalerdietan, ekainaren 29an, Bartzelonan Inter Movistar izango du aurkari eta Xota Osasunak Moprisala. Bi irabazleek final handia hurrengo egunean jokaturako dute, ekainaren 30ean.

Irurtzunen III. Futsal campusa antolatu dute

ARETO FUTBOLA Uztailaren 24tik 27ra izanen da eta izena ematea zabalik dago uztailaren 11ra arte

Irurtzunen III. Futsal campusa hartuko du, uztailaren 27tik 28ra, goizeko 9:30etik 16:30era. Izena ematen duten 5 eta 14 urteko neska mutikoen puntako 3 monitore izango dituzte: Osasuna Magnako Roberto Martil eta Dani Saldise jokalaririk irurtzundarrak eta Lauburu Ibarra taldeko Igor jokalaria.

Areto futboleko 4 eguneko formazioa eta trebakuntza eskaintzen da, gosaria eta bazkaria barne. Horretaz gain, ekipazioa izango dute partaideek, erantzukizun aseguru eta askoz ere sorpresa gehiago. Izena ematea zabalik dago uztailaren 11ra arte, ondoko telefonoetan: 689 451 677 edo 649 092 346. Prezioa: 100 euro.

3X3 txapelketa Uharteko Arakilen Uharteko Arakilgo San Juan festan barruan, igandean, 18:00etan areto futboleko 3x3 txapelketa antolatu dute.



UTZITAKOIA

Altsasu Lloret de Marren txapeldun

FUTBOLA 2017/2018 denboraldia zoragarria izan da Altsasu taldeko kadeteendako. Batetik, 2. mailako kadeteen liga irabazi zuten, mailaz igo dira eta hurrengo denboraldian 1. mailan ariko dira. Eta, bestetik, asteburuan 9. Vila de Lloret kadeteen futbol torneoan aritu ziren eta txapeldunen trofeoa ekarri zuten etxera. Lloret de Marreko torneo ligaxkan jokatu zen, altsasuarrek aurrera egin zuten eta El Girones taldearen kontra jokatu zuten finala. Bana

berdindu eta gero, penaltiek erabaki zuten eta altsasuarrek finagoak izan ziren. "Esperientzia oso polita izan da gure semeendako. Oso gustura egon dira, bikain pasatu dute. Ostiralean joan ginen eta igande gauean bueltatu ginen. Zoragarri ibili dira" adierazi digu Erkuden Lopez de Sabando amak. Xabier Mazkarian eta Esteban Letonaren zuzendaritzapean, maila bikaina eman dute taldeko 19 jokalariek. **Informazio gehiago: guaixe.eus**

Sakana Triatloi Taldekoak Errioxako Half Triatloian

TRIATLOIA 351 triatleten artean Alvaro 56.a sailkatu zen, Iturrioz 210.a eta Garcia de Eulate erretiratu egin zen

Asteburuan half edo erdi distantziako II. Errioxako Triatloia jokatu zen, Logroñoko Half Triatloia, proba oso gogorra: 1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrikan osatu behar izan zituzten parte-hartzaileek. Sakana Triatloi Taldeko hiru kidek hartu zuten parte: Iñaki Alvarok, Juan Ignazio Iturriozek eta Sergio Garcia de Eulatek. Azken honek, Espainiako Koparako postu on bat lortzea zuen helburu, baina igeriketa segmentua behar bezala egiteko arazoak ematen zizkion lesio guztiz ez osatuarekin joan zen Logroñora.

Guztira 351 duatletek lortu zuten proba despeditzea, Tri-Penta Terras de Lugo taldeko Gustavo Rodriguez buru zela (3:56:31). Iñaki Alvarok primerako lana egin zuen eta 56.a sartu zen helmugan lau ordu luze lanean egon eta gero (4:47:06).

Juan Ignazio Iturriozek bost ordu pasa behar izan zituen eta 210. postuan iritsi zen (5:24:48). Eta Sergio Garcia de Eulatek ezin izan zuen proba despeditu. Igeriketa segmentua osatzea lortu zuen, baina lesio guztiz ez sendatuak eragindako arazoak tarteko, erretiratu egin behar izan zen.

Txikiak Eguesibarren

Asteburuan XIX. Eguesibar Haur Triatloia jokatu zen eta Sakana Triatloi Taldeko neska-mutikoeke lan ederra egin zuten. Mutilen aurrebenjamin mailan Oihan Andueza hirugarrena sailkatu zen, mutilen benjamin mailan Mikel Arrizabalaga hirugarrena eta mutilen kimuen mailan Alain Razkin laugarrena. Haurren mailan, Hegoi Lakuntza laugarrena sartu zen helmugara eta Xabier Borrega seigarrena.



UTZITAKOA

Fiteron oso fin

AUTOMOBILISMOA Asteburuan IX. Fiteroko Rallya jokatu zen, Nafarroako Txapelketarako baliagarria. 46 taldek hartu zuten parte eta Iban Lopez de Goikoetxea eta Javier Goikoetxea (Renault 5 GT Turbo) sailkapen orokorrean 11.ak sailkatu ziren, F200 mailan bigarrenak, F2000 mailan lehenak eta nafarren artean laugarrenak.



Finalista guztiak, Iratxo Botxa Txapelketako sariak dituztela. DORIS VICENTE

Iratxo Botxa Txapelketak baditu txapeldunak

BOTXA Igandean Iratxo elkarteko botxategian jokaturako finalean Edurne, Txutxurrin eta Terek AHTrik ez taldeari irabazi zioten (16 eta 20). AHTrik ez hirugarrena sailkatu zen eta Tximeleta laugarrena

Asteburuan Irurtzongo Iratxo elkarteko botxategiak Iratxo Botxa Txapelketako finalerdiak eta finala hartu zituen. Jakina denez, botxa petanka antzeko joko tradizionala da, Irurtzongo Iratxo elkartean zaletasun handia duena. Aipatu elkartean Irurtzongo Trinitate festetan hasi zen jokatzeko Iratxo Botxa Txapelketa. Sei hirukote lehia-

tu ziren, ligaxkan, eta lau talde onenak finalerdietan sailkatzeko txartela lortu zuten. Horrela, ostiraleko finalerdietan, Edurne-Txutxurrin-Tere taldeak 15 eta 10 irabazi zion Desesperados taldeari eta Tximeletari 12 eta 15 gailendu zitzaion AHTrik ez.

Horrela, Edurne-Txutxurrin-Tere eta AHTrik ez taldeek lortu zuten igandeko final handi-

rako txartela. Eta final oso estuan, Edurne-Txutxurrinek eta Terek lortu zuten txapelketa irabaztea, AHTrik ez taldeari 16 eta 20 irabazi eta gero. 3. eta 4. postua erabakitzeke partidaren, Tximeleta gailendu zitzaion Desesperados taldeari, 20 eta 2.

Bukaeran sari emate ekitaldian bildu ziren partaide guztiak, giro onean sariak banatzeko.



UTZITAKOA

Errugbi campusaren balorazio ona

ERRUGBIA Aurreko astean gauzatu zen, Etxarriko futbol zelaian, Sakanako errugbi campusa. 43 gazte trebatu ziren, lau monitorerekin. "Oso balorazio ona egiten dugu. Errugbian aritu dira, egokitutako jolas desberdinak eginez: errugbi beisbola, errugbi zinta..."

La Unicaco 10 emakumezko hurbildu ziren eta txokoetan jolas ezberdinak egin zituzten gure neska-mutikoekekin. Campusa bukatzeko 3. denbora gozo eta osasuntsu batez gozatu zuten guztiak" adierazi du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 22

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU La banda del Jefe Bigun eta Txaston taldeen kontzertua.
23:00etan, Urtzi tabernan.

LARUNBATA 23

ALTSASU Altsasu-Mandubia-Tolosa-Lizarrusti-Altsasu 155 km-ko ibilbidea egingen dute **Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek.**
08:00etan, San Juan plazatik.

ALTSASU Utzi bakean. Alde Hemendik. Sortuk eta Ernaik deitutako kontzentrazioa.
13:00etan, tren geltokiaren aparkalekuan.

UHARTE ARAKIL Tren sozialaren alde. AHTRik ez! Sakana Trenaren Alde taldeak antolatutako kalejira.
18:00etan, plazatik.

IGANDEA 24

ALTSASU XII. Sierra de la Comarca 50 km-ko ibilbidea egingen dute **Barranka Txirrindulari Taldeko Mendi atalekoek.**
7:30ean, abiatuko dira taldeko egoitza.

ETXARRI ARANATZ V. Triku Trail mendi lasterketa. Triku Trail taldea.
09:30ean, Etxarri Aranazko kanpinetik.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.



IRURTZUN Marian Murilloren akuarelen erakusketa. Garagarrilaren 11tik garilaren 13ra, Pikuxar euskal txokoan.

ASTELEHENA 25

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataforma.
19:30ean, udaletxe parean.

OSTEGUNA 28

IRURTZUN Larrain dantza eta jauziak dantzen ikastaroa.
20:00etan, Atakondo ikastetxeko gimnasioan.

ZORION AGURRAK



Oihan
Zorionak maitia! 9 urte betetzen dituzu. Ongi pasa. Mila muxu Egoitz, aita eta amaren partez.



Oihan
Zorionak txapeldun! Ongi pasa zure eguna. Muxu pottolo bat, Aguraingo eta Arbizuko familiaren partez.



Uxue
Zorionak Uxue familia guztiaren partez!! Besarkada bero bat!




EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 22




Goiza goibel esnatuko da, baina egunak aurrera egin ahala, ostarteak irekiko dira, tenperatura igoaz.

Larunbata, 23




Eguzkia izango da protagonista gurean. Tenperaturak ez dira gehiegi igoko ipar haizearen ondorioz.

Igandea, 24



Udaren solstizioak eguraldi ederra ekarriko digu. Zeru garbiak eta tenperatura altuak izango ditugu.

Astelehena, 25



Bero izango da astelehena, baina gau partean hodei batzuk sartuko dira, tenperaturak jaitsiz.

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua
info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA I NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Urdiango udalak aisialdirako begiralea behar du. Ezinbestekoak EGA (edo baliokidea) eta monitorea titulua. Bestelako ikasketak ere kontuan hartuko dira (magisteritza ikasketak etab.). CV-ak udaletxean jasoko dira

Etxarri Aranazko jubilatuen elkarrekin langile bat behar du: Elkarteko taberna eramateko. Interesatuak deitu 650 669 397 – 660 340 336

ERRENTAN EMAN

Ileapaindegia Olaztin. Alokatu edo eskualdatzen da. Elena 650587669

OHARRAK

Etxarri Aranazko kontsumitzaileen bulegoa. Garilak 2 eta irailak 3. Iratxe elkarteko kide batek atenditzen du. Aldez aurretik udaletxean izena eman beharra dago.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Otadiako ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru biltzea egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduzako kontuetan sar daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza

zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarregui@gmail.com edo amigosefinaarregui.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Paboi) telefonotara hots egin dezatela

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kuban eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalduz eta finantzazten: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakan-darrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

OPATUTAKOAK I

GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa
Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburra.es

JAIOTZAK

- **Eiden Jauregi Cuevas,** ekainaren 3an Etxarrenen
- **Inhar Zabalza Llano,** ekainaren 12an Arbizun
- **Ibai Landa Gonzalez,** ekainaren 12an Altsasun
- **Fatima El Akri,** ekainaren 16an Olaztin
- **Irai Reparaz Pires,** ekainaren 18an Arbizun

EZKONTZAK

- **Aitor Andueza Lizarraga eta Itzara Agirre Beraza,** ekainaren 9an Iturmendin
- **Eduardo Felipe Martin eta Enara Lakuntza Palazuelos,** ekainaren 11n Etxarri Aranatzan
- **Juan Carlos Romero Piñas eta Uxua Azpiroz Armendariz,** ekainaren 18an Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Rosario Igoa Artieda,** ekainaren 14an Etxarri Aranatzan
- **Aurelio Razkin Osinaga,** ekainaren 16an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA



Angeles Ollokiegi Ollakindia

Urdiainen hil zen, 2018ko maiatzaren 23an

Betiko izango zaitugu gogoan

Jaso ditugun doluminak eskertzen dizkizuegu

Etxekuek

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa bame dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria.
Galdetu prezioa.
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunak.
ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ bame).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

Zure iragarki laburra gure

Merkatu txikian

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

tanatorioak

IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



La Banda del Jefe Bigun 2017an Urtzi parean egindako kontzertuan. ARTXIBOA

Ongi pasatzeko kontzertua

La Banda del Jefe Bigun eta Txaston talde sakandarrek kontzertua eskainiko dute gaur, 23:00etan, Urtzi tabernaren kanpoaldean. Duela lau urte hasi ziren "tabernako bezeroak eskertzeko" kontzertuak ospatzen uda hasieran

ALTSASU

Ohitura bihurtu da udari ongi etorria emateko Urtzi tabernaren kanpoaldean garagarrilean antolatzen den kontzertua. La Banda del Jefe Bigun eta Txaston taldeak arituko dira gaur gauean, 23:00etatik aurrera. Urtzi tabernako bezeroei eskerrak emateko bezala hasi zena, urtero entzule gehiago irabazten ditu.

Ez jotzeko jaio zen taldea da La Banda del Jefe Bigun, Longi Andueza taldeko kideak azaldu duenez. Astero entseatzeko gelditzen dira, asteartean: lagunak artean gustatzen zaien musika eta abestiak jotzen dituzte, ongi pasatzen dute, eta garagardo bat

edaten dute; zaletasun bat da. Hortaz, urtean lau edo bost aldiz egiten dituzte kontzertuak. Publikoaren aurrean jotzearena bigarren maila batean dago.

Duela lau urte inguru egin zuten estreinakoz udaren hasieran Urtzi tabernaren kanpoaldeko kontzertua. Dani Lizarraga, Urtzi tabernako jabea, tabernako bezeroak eskertzeko modu bat zen. Anduezak azaldu duenez, esperientzia probatu nahi zuten, "gogoak geneuzkan". Agertoki txiki batekin hasi ziren, eta iaz espektatiba guztiak gainditu zituzten. Plaza bete zen La Banda del Jefe Bigun entzuteko. Txaston taldeak jo zuen iaz ere, eta horrek publikoa ekarri zuen,

Anduezaren ustez. Aurten iazko muntai berdina egingen dutela aurreratu du Anduezak.

Rock and roll

La Banda del Jefe Bigun taldeak rock and roll musika jotzen du. 1950ko hamarkadatik 1990ko hamarkadetarako rock musikaren erreposaoa egiten dute. Ehun bat abestiko erreperitorioa dute, eta emanaldi baten aurretik abestiak aukeratzen dituzte. Betiere, publikoa gustura sentitzea nahi dute. Horretarako, abesti ezagunak jotzen dituzte. Ongi pasatzen dute eta ongi pasatzea nahi dute ere. Hamabi urte bete ditu taldeak. Rikardo Aretak (bateria), Ismael Kaltek

(gitarra), Longi Anduezak (gitarra) eta Ibai Hernaizek (baxua) osatzen dute La Banda del Jefe Bigun taldea.

Mexikarrak

Txastonek ibilbide luzeagoa egin du. 1980ko hamarkadan hasi zen, kideak oso gazteak zirela. Izar jotzeko ezkontzetan jo izan dute. Apaizek baina ezkontza gehiago egin dituztela dio Anduezak. Izan ere, hogeita hamar urte pasa dituzte Izarran jotzen. Orain, astero elkartzen dira entseatzeko, eta, noizean behin, kontzertuak ematen dituzte. Gaurkoa kontzertu horietako bat da.

Mexikarrak joko dituzte gaur. Iaz konturatu ziren mexikarrek jendeak dantza egiten zuela eta benetan disfrutatzen zuela. Beraz, aurten mexikarrak jotzea erabaki dute. Mexikarrak disko batean biltzea pentsatu dute ere.

Txaston taldeko hasierako kideak Mari Jose Gil (ahotsa), Iñaki Erbiti (teklatura), Patxi Artigas (gitarra), Juan Velez (gitarra), Javier del Rio (baxua) eta Roberto Cristobal (bateria) dira. 1986. urtean hainbat kidek taldea utzi zuten, eta Longi Andueza (gitarra), Luis Fernando Andueza (baxua) eta Juanjo Mintegi (teklatura) batu ziren.

Urteak pasa dira bi taldeak sortu zirenetik, baina La banda del Jefe Bigun eta Txaston taldeek aurrera jarraitzen dute "lagunak" direlako. "Kontzertuz kontzertu eta herriz herri" joateak lan handia eskatzen du, eta, gainera, bakoitzak bere egunerokotasuna eta lana dauka. Hortaz, azkenean harremanak "higatzen" direla esan du. Horregatik, haien zuzeneko garrantzitsuena ez da kontzertuak ematea, baizik eta musika egiten ongi pasatzea.

Orritzeko pertsonaiek Eneperin pasako dute San Jaun gaua

Irurtzango Orritz taldeko pertsonaiek San Juan gau magikoa ospatuko dute Eneperi jotzeko, Bizkaian, Gaztelugatxeko San Juan ermitaren ondoan. Orritzeko Galtzagorriak, Gizotsoa, Basajauna, Akerbeltza, Mari, Basanderea, Tartalo eta abar egonen dira ospakizunean bihar, garagarriaren 23an, 23:00etatik aurrera.

Festetako kartela aukeratzeko lehiaketa Bakaikun

Garagarriaren 30a arte izanen da aukera Bakaikuko festak iragarriko dituen kartelak hautatzeko lehiaketa parte hartzeko. Lanak bertikalean egon behar dira, eta edozein teknika eta materialetan eginak. Gainera, Bakaikuko Festak 2018ko gariaren 25etik 29ra testua agertu beharko da. 7 eta 14 urte bitartekoek parte har dezakete.

Akelarre filmerako aktoreak behar dituzte

XVII. mendeko sorginen inguruko istorioa kontatuko du Pablo Agüero zuzendari argentinarrak Akelarre filmean. Euskal Herrian grabatuko dute, eta ekoiztetxeak aktoreak behar ditu. 18 eta 25 bitarteko emakume euskaldunak bilatzen dituzte. Interesa duenak akelarre@gmail.com helbidera argazki bat eta datuak bidali behar ditu.

Kamarak, argiak eta... Gaztewood film laburren txapelketa

Gaztewood III. Laburmetrai txapelketa herrikoia prestatzen hasi dira Altsasuko Gazte Asanbladako kideak, eta lehenengo urratsa lehiaketan parte hartzeko oinarriak kaleratzea izan da.

Film laburren zinema jaialdi herrikoia datorren urtean, 2019an, izanen da, baina aurretik txapelketan parte hartuko duten film laburrak bildu behar

dituzte. Hortaz, film laburrak txapelketara aurkezteko ikusentzunezkoek bete behar dituzten baldintzak kaleratu dituzte. Film laburrek gehienez 15 minutuko iraupena izan behar dute eta horizontalean grabatu behar dira.

Film laburrak aurkezteko 2019ko martxoaren 31a arte aukera dago. Proposamenak USB edo DVD euskarrietan aurkeztu behar dira Altsasuko Gazte Asanbladako kideak, eta lehenengo urratsa lehiaketan parte hartzeko oinarriak kaleratzea izan da.

Salazarren eta Andaren eskulturak Donibane Lohitzunen

Bizirik dauden euskal eskultore handien lanak bildu dituzte Donibane Lohitzuneko Dukontenia eta La Rotonde aretoetan. Hamasei artisten lanek osatzen dute *Euskal eskultoreak Donibane Lohitzunen* erakusketa, eta, haien artean, Jose Ramon Anda bakaikuarraren eta Dora Salazar altsasuarraren lanak daude.

Euskal artearen historian 50 urteko historia ikusi daiteke erakusketan, kronologia eta koherentzia estilistikoa mantenduz, komisarioen hitzetan. Hortaz, pieza gutxi batzuen bidez erakusketa bere osotasunean koherentea izatea bilatu dute. Artista bakoitzaren hiru edo lau lan daude ikusgai. Dukontenia eta La Rotonde aretoetan ez ezik, euskal eskultoreen lanak, Donibane Lohitzuneko hamabost saltegitan izanen dira ikusgai ere.

Kris Okarizen kartelak iragarriko ditu Arbizuko Festak

Bihar, garagarriaren 23a, hasiko dira Arbizuko Sanjuanak. Festak iragarriko zituen kartela hautatzeko lehiaketa antolatu zuen Arbizuko Udaleko Kultur arloak, eta Kris Okarizen lanak irabazi zuen aipatu lehiaketa. Haurren kategorian Frida Mendibena, Paula Igoaren, Obats Mendinuaren eta Izaro Duacaren lanek irabazi zuten.



Ana Ibañez Elosua eta Dani Martirena Indart egileak. UTZITAKOA

Cosimoren istorioak irabazi du Etxepare saria

Ana Ibañez Elosua eta Dani Martirena Indart egileen 'Cosimoren Katiuskak' album ilustratua aukeratu du Etxepare sariako epaimahaiak 19 lanen artean. Udazkenean Pamiela argitaletxeak liburua argitaratuko du

SAKANA

Etxepare literatura saria euskaraz sortutako albumen produktzioa sustatzeko helburuarekin sortu zen. Nafarroako 22 toki-entitatearen euskara zerbitzuek antolatzen dute, Sakanako Mankomunitatea barne. Ana Ibañez Elosua eta Dani Martirena Indart egileek jaso dute aurtengo edizioako saria. Egileek

5.000 euroko saria jaso dute, egile eskubideen aurrerapen moduan.

Cosimoren Katiuskak albuma aurkeztu zuten Ibañezek eta Martirenak. Egileek Italo Calvinoren *II barone rampante* liburu ezagunaren erreferentzia erabili eta gaurkotu dute albuma sortzeko. Cosimo eta parke txiki bat dira albumaren prota-

gonistak. Albumak hurrei baliabide berriak erakutsiko dizkie, eta edertasunaren aldarrikapena zabaltzen du ere.

Albuma "gogoetarako kontakizuna bada", aurtengo Etxepare sariako epaimahaiaren arabera. Leire Bilbao idazleak, Leire Salaberria ilustratzaileak eta Asun Agiriano haur bibliotekariak osatu dute epaimahaia.

"Testuak poesia du, umorea eta jolasa: hitzekin jolasten du idazleak, irudiekin marrazkilariak". Saritutako lana album ilustratu baten ezaugarriak "bikain" erakusten dituela azaldu dute. Hortaz, irakurlea adi mantentzen lotzen du eta heldu baten konpainia ezinbestekoa da elementu guztiak harrapatzeko. Bai testua baita ilustrazioak ere "indartsuak" direla adierazi du epaimahaiak, "bi lengoaiak abetsak dira".

Egileak

Dani Martirena Indart Legasan jaio zen eta kazetaria da. EITB-ko albistegietan erredaktorea da. Hainbat literatura lehiaketan parte hartu izan du eta bere lanak sarituak izan dira. Basauriko Euskarabila elkarteak antolatu izan duen ipuin erotikoen lehiaketan parte hartu zuen eta bere bi idazlanak Txalaparta argitaletxeak lan sarituekin argitaratutako liburu bilduman irakurri daitezke: *Bero haizeak* (2011) eta *Esku hori* (2012). Iruñeko udalak egile berrientzat antolatzen duen literatura lehiaketan ere parte hartu izan du, eta lehen saria jaso zuen 2015ean *Astearte hark arrunta behar zuen* lanarekin. Pamiela argitaletxearen *39 idazle nafar* argitalpenean ere parte hartu du Martirenak (2017).

Dani Martirena Indartek eta Ana Ibañez Elosuak auto ekoizpenean argitaratu zituzten *Hankaz gora du amak mundua* (2016) eta *Jonek Jone izan nahi du* (2017) liburuak. Ibañez Arte Ederretan lizentziaduna da, eskultura espezialitatean, eta arte eskolan grabatu eta estanzazio teknikak ikasi zituen. Hainbat erakusketetan parte hartu du: Biguina eta beroa Zizur Nagu-

siko kultur etxean, Koloreak eta hariak Gayarre antzokian eta Haragi barruko lorategiak Molmar arte galerian. Sarietako dagoeneko Iruñeko Gazte Sari XIV. deialdian eskulturako 2. eta 3. saria jaso zituen Ibañezek.

Historia

Nafarroako literatura sari esanguratsu baten falta sumatu zuten, eta literatur lehiaketa alorrean erreferentzia izanzen zen saria sortu zuten 2004an: Etxepare saria. Haur, gazte eta helduentzako literatura saria izan zen hasieran. Ondoren, 2006tik aurrera albumak sortzeko beka bihurtu zen.

Album ilustratuen berezitasunengatik ekoiztea garestia da. Gainera, euskaraz argitaratzen diren albumak itzulpenak izan ohi dira. Hortaz, Etxepare sariak euskaraz sortutako albumen produktzioa sustatzeko helburuarekin sortu zen, izan ere, Etxepare lan saridunak argitaratzen dira. 2009. urtean beka izateari utzi eta sari bihurtu zen Etxepare.

Etxepareko saridunak

- 2017 Arraroa.
- 2016 Zerua gris dago.
- 2015 Munstroek ere pixa egiten dute ohean.
- 2014 Hiltzaileak.
- 2013 Gerrak ez du izenik.
- 2011 Hara!
- 2010 Eurria ari duenean.
- 2009 Alex, nire laguna
- 2008 Katalina kontalari.
- 2007 Zirkua amets.

Kultur egitarauak bultzatzeko diru-laguntzak onartu dira

Kultur jarduerak antolatzeko eta egitarauak osatzeko diru-laguntzak jasoko dituzte Sakanako hainbat udalek

SAKANA

Kultur programazioa osatzeko eta bultzatzeko diru laguntzak onartu ditu Nafarroako Gobernuak, Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. 95 toki erakunde diruz lagunduko ditu,

haien artean, Irurtzungo, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olaztiko udalak. Bideratutako laguntza 1,4 milioi eurokoa da.

Bi laguntza deialdi dagozkie diru-laguntzak, alde batetik, Udal Platea Antzerki Sareari

atxikitutako udalerritan programazioa sustatzeko diru laguntzak, eta, bestetik, Artea eta Kultura programa.

Udal Platea Antzerki Sarearen diru laguntzen helburua da hainbat kultur diziplinetako proiektuak kudeatzeko baliabide handiagoak izatea da, hortaz, talde profesionalen ikuskizunak kontratatuzko, eta programazioaren sustapena eta publizitatea egiteko baliabideak handitzeko diru-laguntzak dira, besteak beste.

Artea eta Kultura programaren barruan kultur arloko hainbat diziplinetako jarduerak antolatzeko diru laguntzak ematen ditu Nafarroako Gobernuaren bigarren deialdiak. Hortaz, musika, literatura, antzerkia eta abar emanaldi eta ekimen antolatzeko kostuak ordaintzeko jasoko dute toki erakundeek diru laguntza. Nafarroako 94 toki erakundeek jasoko dute diru laguntza, Irurtzungo, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olaztiko udalak barne.



Altsasuko iortia kultur gunea.



Eider eta Oihane Uharte Chueca ahizpek San Juan Kantaita egiten dute bihar.

“San Juan Kantaita egitea ohore bat da”

Urdiainen, San Juan bezperan, antzinatik datorren ohitura jarraitzen dute herriko neskek. San Juan ermitaren aurrean San Juan Kantaita egiten dute. Oihane Uharte Chuecak bost urte darama ohitura betetzen, eta aurtengo neska beteranoena da

Erkuden Ruiz Barroso URDAIN

1 Noiz hasi zinen San Juan Kantaita egiten?

Duela bost urte inguru herriko ohiturarekin jarraitzea proposatu ziguten Urdiaingo gazte batzuek, hau da, San Juan bezperan San Juan kanta eta dantza egitea. Baietz esan nien. Aurten beteranoena naiz, berriak

izanen dira gehienak. Batzuek urte pare bat daramatzate, baina ia denek estreinakoz egiten dute Kantaita.

2 Zer da San Juan Kantaita?

Antzinatik datorren Urdiaingo ohitura bat da. San Juan bezperan herriko emakumeek San Juan ermitaraino prozesio moduko bat egiten zuten. Ermi-

tan kantatzen eta dantzatzen zuten. Belaunaldiz belaunaldi pasa da ohitura, ez da aldatu.

3 Noiz egiten da?

San Juan bezperan, garagarriaren 23an, 19:00ak aldera, neskak Udaletxetik ateratzen gara eta San Juan ermitara joaten gara. Han gaudenean meza egiten da eta, ondoren, Kantai-

ta egiten dugu. Bitartean, sua pizten da.

4 Zergatik egiten da ohitura hau Urdiainen?

Antzinako garaietan uzta txarrak egoten ziren eta eguraldi txarra egiten zuen. Hortaz, uzta onak izateko eskaera moduko bat da Kantaita.

5 Baldintzaren bat bete behar da Kantaitan parte hartzeko?

Ez. Herriko neska gazte bat izatea eta prest egotea. 14 edo 15 urtetik aurrera egin daitekeela uste dut. Ohiturarekin jarraitzeko beti behar izan da jendea, eta batzuetan jende asko izan ohi da eta beste urte batzuetan gutxi. Jende asko dagoenean eta zuk urte asko badaramazu egiten, beste batzuei lekukoa pasatzen diezu. Ez da neska kopuru zehatz bat behar. Zortzi bagara, zortziek egiten dugu. Herrian hainbat jantzi daude, baina ez dira asko. Beraz, jantziek mugatzen dute kopurua; hamar edo hamabi izan ohi gara.

6 Letra ere antzinatik dator. Zer moduz moldatu zarete ikasteko?

Zailtasuna badauka herriko euskalkian dagoelako, eta, ni Urdiainen jaioa ez naizela, nahiz eta aspaldi etorri nintzen, zaila egiten da. Hainbatetan errepikatatu ondoren erraza egiten da. San Juan eguna baino bi aste lehenago elkartzan hasten gara entseatzeko eta barneratzeko.

7 Norbaitek erakusten dizue?

Belaunaldien artekoa da, hortaz, Kantaita egiten duen jendea aldatzen joaten da. Esan bezala, urte batzuetan batzuk sartzen dira eta beste batzuetan

beste hainbat ateratzen dira. Beraz, ateratzen direnek edo urte gehiago daramatenek berriei irakasten diete. Ez dago pertsona bat urtero irakasteaz arduratzen dena.

8 Dantza ere bada, nolakoa da?

Dantza, berez, ez da dantza bat. Eskuak elkartzuta ditugula kanta, koreografia moduko batekin jarraitzen dugu.

9 Zer suposatzen du herriko neskendako eta emakumeendako San Juan Kantaita egitea?

Oso gauza berezia da, pertsona bezala aberasten nau. Azken finean herriaren ohitura bat egiten ari zara. Ohore bat da.

10 Jantziak bereziak dira. Nola lortzen dituzue?

Jantzi hauek herriko emakumeek izan ohi dituzte, beraz, Kantaita prestatzen hasten garenean emakumeengana joaten gara jantziak ote dituzten galdetzerara. Emakume hauek gazte garaian Kantaita jantzi horiekin egin zuten. Batzuek bere familiako jantziak dituzte, baina beste batzuek ez.

11 Nolakoa da jantzia?

Landutako jantziak dira. Bi gona dira, urdinak, eta gonari buelta ematen diozunean oihaltzerrenda berdea ikusten zaio. Goiko gona buruan jartzen da eta behean gelditzen dena gona bezala erabiltzen da. Neguko eta udako gonak daude, lodiak edo finoagoak. Goialderako bi modu daude: lehenengoa jaka da, eta jakak ezkondu emakumeen jantziak ziren. Bigarrena txalekoa da, eta txalekoak ezkondu gabekoendako ziren.



UDA HONETAN
freska ezazu zure irudia

*Txartelak, logoak, iragarkiak, pegatinak, eskuorriak, kartelak...
 eta bururatzen zaizun guztia!*

948 564 275 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
 gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

